

Bartolo Ayerbe

NERE MUNDUALDIA

Erri-literatura
Auzoa Liburategia

Guzuzenak



ETOR

NERE MUNDUALDIA

Auspoa Liburutegia
195



Nere mundualdia

Bartolo Ayerbe

NERE MUNDUALDIA
(Oroimenak)

Zuzendari Antonio Zavala

ETOR

ARGITALETXEA

ITZAURREA

Askotan ez baiña, bein edo bein, aitaren agindua bete gabe utzia izango naiz.. Eskatutako zerbait ukatuko nion ziur aski zenbait alditan. Orain eskatu didanari, ordea, eziñezkoa zait ezetz esatea. Ukatu ez-ezik, iñoizkorik gustoen egingo dut agindutakoa: ain gogotsu eta ilusioz beterik burututako liburu onen itzaurrea egitea.

Liburua idaztera zijoala esan zigunean, arriturik utzi gindun eta ez genion ia aintzakotzat artu ere.

- Zer uste duzu zuk? Bai al dakizu zer dan liburu bat idaztea? Orien erreza balitz ... -esaten genion.

- Bai; prueba egin bear diat beintzat. Nik gauz asko zeuzkat gogoan, burutik naiko argi niok oraindik eta, okerragorik ezpadet, Jainkoaren laguntzarekin orixe egin nai nikek.

- Asi, asi nai duzunean, ea egiten duzun ...

Asi eta bai egin ere.

Andik pixka batera, baserrira joan nintzan batean, an eman zidan bilbil egin eta gomatxoarekin lotutako papel-mordoska bat, esanez:

- Okerra pranko egongo dek or, baiña zuzenduta makinaz txukun-txukun jarri eta Aita Zabala'ri erakutsi akiok. Berak esango dik ondoena zer ir uditzen zaion.

Alaxe egin nuan; orri batzuk biali nizkion eta denboraz erantzun zidan Aita Zabala'k, oso ondo iruditzen zitziola eta jarrai zezan esanez.

Andik aurrera, zortzian edo amabostean bein, baserrira joaten nintzanean, an edukitzen zuan bere lantxoia egiña.

Makinaz garbira pasatze-lana, gure alaba Mirari'k artu zuan bere gain. Propinatxoa bidaltzen zion eskuz idatzitako paper artean, eta ura ere porik. Ala, alkarri lagunduz egindako lana da.

Mutil koskorra zanetik asita, bere bizitzan, tokian tokiko paeadizo, gora-beerak, gertakizunak eta abar

kontatzen ditu, batipat. Duan sinismen sendoan oiñarrituriko zenbait pentsakera, iritzi eta aolkuak eman ere bai. Baiña bada tartean bertso zaar, berri, umorezko gertaera eta izkirirniri edo txisterik ere.

Gai askotxo jorratzen ditu, beraz. Bestalde, sukalde txokoko kutsua daraman euskeran idatzia dago. Ori dala-ta, ez dut uste iñori aspergarri gerta dakionik. Batere nekerik gabe edonork irakurri eta ulertzeko modukoa dala esango nuke.

Pertsona bezela zer nolakoa dan nik esatea, ez litzake egoki izango. Ori ez da nere egitekoa. Bein, gogoan daukat zer esan zidan apaiz batek beragatik:

- Bere buruarekin pakeatutako gizona da zuen aita.

Onekin ia dana esana legoke besterik gabe.

Zerbait erantsitzekotan, zera esango nuke: ez gerala aginpean eta derrigorrean eziak, askatasun osoan baizik. Zezakeen neurri apalean, aal zuan aurtzaro eta gaztarorik onenak eman zizkigun. Eziñean ibili arren, arrazoi txarrrik ez sekula. Zigorra ez baiña, erakusbide eta ejenplo onaren aldekoa izan da beti.

Danok badugu zerbait eta, ez, bere burua zaindu ez dualako baiña, osasun bera xamarrekoa izana da.

Urdalla edo estomagoa zala, gerriko miña zala, nerbioek eragindako erori-aldi edo depresioa zala, egun eta batez ere gau txar asko pasea da. Oera joan eta lorik ezin egin.

Berrogei bat urte zituala, gau batean, iltzera zijoala-ta, etxeko denak esnatu eta beregana eraman arazi gindun. Gu danok negarrez, eta berak, irripartsu, onela itzegiten zigun:

- Urrengo bolarak eramango nau. Etzeukan iñongo kezkek eta beldurrik iltzeko.

Gauz tristeak dirudite eta ala dira geienontzat. Bailia ain une larrian, pertsona alako osotasunean konformatzen ikustea, izan daitekenik pozgarriena dala esango riuke edonorrentzat ere.

Sendagillari deitu eta, etorri zanean, ondo gogoan daukat zer esan zion:

Zuk ez daukazu ezer. Laister, eguna argitzen duanean, beiak jeztera jeiki bear duzu burutazio oiek kentzeko.

Gure ama zana lenengo zala, lasaitu ederra artu genduan ...

Ez nai gogoratzen egun artan beiak jeztera jeiki zan ala ez; baiña bere onera bereala etorri zala bai.

Geroztik ere, ainbestekorik ez, baiña izan ditu ala moduzko erori-aldiak. Ama il zanean, batipat, kosta zitzaion burua jasotzea.

Bestalde, umoretsua eta bertsozale amorratua dezute; lagunarte eta batez ere sendiarteko billerak atsegin zaizkiona. Alakoetan, ondo bada beintzat, txiste, bertso zaar eta berririk ez da faltako.

Amaika bertso bazekien eta badaki oraindik. Guk ere artarako gogoia izan eta, mutikoak giñala, ikas genitzan, paperean idatzita ematen zizkigun. Ala ere, ikasitakoak, neri beintzat, aaztu zaizkit geienak. Nik baiño askoz geiago dauzka gogoan oraindik. Zaletasun eta griñak, ordea, guregan irauten dute, galtzeko beldurrik gabe.

Liburu au irakurtzen asten danak, bereala antzemango dio, bere egillea sinismen sutsukoa, elizkoia eta pakezalea dala. Bere denboran, ezin esango du iñork, sesio eta asarre aundirik sortu duanik.

Orrek asko lagundu diola, aitortzen du, bere bizitzan. Gero eta aberatsagotzat jotzen du bere burua. Baiña aberastasun ori ez da diru eta ondasunezkoa, espirituzkoa baizik, esaten duanez.

Esan ere egin dut eta ez nuen alako asmorik. Baiña azkenean ez dakit ez ote naizen aurreragi joan. Buka dezadan, beraz, auxe esanez: esku artean duzun

ezkero, irakur ezazu astiro-astiro larogei ta bi urte egitera dijoan batek egindako lantxo au.

Aseran zugan gendun
ezin sinistua,
esan bearra dago
etzala juxtua.
Zu egonik larogei
urte kunplitua,
egin dezunak badu
bere meritua,
orra zure ametsa
egi biurtua.

Joxe Aierbe

ESKEINTZA

Nere bizi modua
nolakua izan den,
idatzita utzi nai
al bada nik emen.
Jainko errukitsua,
lagundu nei arren,
arkituko banintza
zerbaiten bearren,
aurrera egiteko
asi naizen lanen.
Danak eskeintzen ditut
Beraren izenen.

NERE AURTZAROA

Ni 1906'garren urtean jaio nintzan, Goierri'ko Gaintza'n, Artxueta baserrian. Gu zazpi senide giñan; eta ni azkenekoa, txikiena.

Gure guraso aiek oso onak ziran benetan. Sinismen aundikoak eta zuzenak. Oso beartsuak munduko ondasunetan, baiña aberatsak animako gauzetan.

Orduko basarri zarretan, ia egunero, errosario santua errezatzen zan, edo geienean bai beintzat. Orduko oitura ala zan. Bestela, ez ziran konformatzen aiton-amonak eta gure gurasoak.

Orduko euskal errietako sukalde zar aiek elizatxo batzuk ziran, edo unibertsidadeak esango nuke nik. Ez zan garai aietan irratirik, eta telebistarik ain gutxiago.

Baiña bai elizako liburuak eta bertsopapera asko gure sukalde zarrean, eta bai bertsoak ikasi ere garai aietan, orain baiño geiago.

Nik neronek ere ikasi nuan pranko. Oraindik gogoan dauzkat bastante, eta uste del Txirritak jarria dala onoko au, gure aurreko guraso aieri:

Gure aurreko guraso zarrak
aspaldi samar il zian,
guk ainbeste bat faltatu gabe
fedesantuko itzian.
Izar tartetik begira daude
jendia nola bizi'an,
negar-malkuak dariotela
fueruak ofenditzi'an,
zer kontatua izango dute
Josepetara biltzian.

Ordutik onera sinismena oztu egin zaigu, eta ez goaz batere obeto gure euskal erriak, gaiñerako gauzetan ere. Errespeto gutxiago noski.

Gertatzen dana, nere iritiz, orain ondo bizi gaitezten eta geroko uzten ditugula beste gauzak: animako lanak eta betikotasunaren etorkizuna. Aurrena egin bear lirakenak, azkenerako utzi.

Azken ori noiz ta nola izango degun ez dakigu emen iñork. Baiña bai egunetik egunera gero ta alderago degula mundua uzteko ordua danok.

Esan bezela, gu zazpi senide giñan, eta ni bakarrik nabil munduan. Besteak izkutatu ziran emendik. Baiña nik badaukat itxaropena, gure guraso ta senideak guri laguntzen digutela zero goitik, gero alkarrekin bildu gaitezen. Ala gerta dedilla.

Orduko basarri zar aietatik, ta kaletik ere bai, zenbat erlijioso eta erlijiosa sortzen ziran! Eta bai bestelako gizon jator asko ere. Gaur oraindik ere badegu oien bearra emen, eta mundu zabalean ere bai, gure sinismenak iraungo badu, nere ustez beintzat.

Nik amabost urte nituala, eta ni bezela orduan gaiñerakoak ere berdin, San Frantziskoren Ordenan sartzen ziran, da Ama Birjiña Karmengoaren Ordenan ere bai, gu an giñan garaian, Gaintza'n.

Illean bein, jai-arratsaldean, prozesioa egiten zan San Frantziskoren irudiarekin, gure guraso eta baita besteak ere berdin, garai aietan esateko erri guztia. Obligazioa zala ura egitea illean bein, guri ala esaten ziguten.

Elizkizuna bukatzen zanean, erriari bertan egiten genduan erromeria, gaztedia dana bertan gelditzen baitzan garai aietan, negu-partean beintzat.

Soiñua bear dantzatzeko. Nik neronek askotan jotzen nuan aoko soiñua, jendea dantzatu zedin.

Dirua pranko ematen zidaten eta ni pozik gelditzen nintzan.

Illunabarrean, amizkilla jotzean, ixildu egin bear, eta dirua zuana tabernara eta ez zuana etxera.

Geroxeago sortu zan eskuko soiñu-jole bat errian bertan, eta uran naiago eta nere irabaziak orduan bukatu ziran. Baiña dantza asko gustatzen zitzaidan. Egiten genituan saio ederrak.

Udara-garaian, inguruko errietako pestak ziranean, gaztedia auzo-errietara joaten giñan dantzan egitearren, naiz-ta urrutitxo egon beste erri oiek. An baziran eskuko soiñu-jole pranko, eta aiek ikustea ere neri asko gustatzen. Neri eta bai besteai ere.

Orduan asi ziran soiñu-joleak ugaritzen, Goierrri aldean behintzat.

Alaxe disfrutatzen genduan orduko gaztediak, erri aundietara joan gabe, erri txiki aietan behintzat.

Gure basarri zar ura basarri ona zala esaten zuan orduko jende askok. Baiña toki destierroan zan; erritik azkenekoa. Urrutiena ta oso zoko batean. Alde guzietara beetik gora atera bear, iñora joango bazan.

Elizara joateko ere, ordu erdi bat gutxienez sasoikoak, eta zarrak ia ordu bete. Baiña alare ez ziran joan gabe geldituko orduko zarrak eta gazteak.

Eta eskola ere berdin. Guk eskola etxean ikasi genduan bastante. Anai zarrena Salbatierra'n egon zan bastante denboran, eta eskola ona ikasi zuan garai artarako. Erderaz ere puska bat bai. Eta neguko gau luzeetan, egunean ordu bete bat danok, bata bestea lagunduz, zerbait ikasi egiten genduan.

Eskolara, eguraldi txarretan eta neguan geiena. Bazkaltzera etxera joateko urruti, ta bertan gelditu askotan. Amar zentimoko opilla jan da pelotan ibilli, ta ostera eskolara. Andik etxera joatean, gose ederra izaten zan. Talo otzik bazegoan sobraturik, gozoa zan orduan.

Ogia gutxitan izaten zan. Gogor samarra izanda ere, guk jango bai garai artan.

Baiña asetzen giñan otorduan zerbaitekin. Ez genduan ainbesteko goserik pasatzen. Beti edo geienean, jaten berdiña: babarruna, urdaia edo lukainka, ta taloa ta esnea.

Ura poza gaztaiñak eltzeko! Egiten genituan janaldi ederrak. Orduan gaztaiña asko zan euskal errietan, eta iru edo lau illabete irauten zuten.

Perira eramaten ziran anega batzuk. Baiña diru gutxi balio izaten zuan garai aietan. Gaztaiñik onena eraman da alare, zortzi edo amar pezta anega saltzen zan Billafranka'ko perian, eta astoak anega bat naikoa gure etxetik eramateko. Ain ziran bide txarrak, eta Billafranka urruti gelditzen.

Ara joan bear, salduko bazan ezer gauzik. Babarruna asko izaten zan garai aietan; ta lakari bat edo bi ta dozena pare bat arrautza edo iru baziran, ordurako tratu polita.

Gero asi giñan mantekilla egiten, ta gero esnea aulagoa artu bear, mantekilla kendutakoa. Baiña ama gaixoak peritik zerbait ekartzeko, ondo etortzen zitzaion, eta ala segitzen genduan.

Urte batzutan beintzat, gure arnak ibilli txar asko egin zuan Billafranka'ra, batez ere negu-partean. Ain urruti baitzan gure basarri zar ura. Askotan illundu ta etxera ageri ez. Ta parolarekin joaten giñan bidera.

Gero, alaba asi zanean, biak joaten ziran, da beste animo bat alkarren anparoan.

Aita zana ere oso perizalea zan. Baiña geienez goiz bazkaldu ta arratsaldean joaten zan. Jakiña, ura bide lasterretik. Bide erdia ere ez noski arentzako. Baiña ez zion bein ere laguntzen etxera etortzen amari. Ama gaixoak astoa lagun; eta aita, lagunakin meriendatuta igual bapo etxera.

Gure aita zana langille izugarria zan eta burutsua. Lan aundiak egin zituan arek basarri zar artan. Sagardi aundia jarri, len otadiak ziran lurretan. Tolare eta barrikak ere berak egin zituan etxean, gu azi giñanerako. Bazan sagar-pilla ederrik, eta urte guzian sagardoaren paltik ere ez zan gure etxean.

Sagardoa saltzen ere jarri genduan. Baiña iñor gutxi joaten zan. Errialean litroko, ezin diru asko artu. Eta geroxeago enbotellatua, iru txakur aundian. Lana egin da diru gutxi.

Sagar-pilla galantak usteldu ta an gelditzen ziran sagastian bertan. Andik ezin eraman iñora. Ain urruti eta bide txarrak. Sagar-denbora iristen zanerako, loi izugarriak ango bideetan.

Ganbaran ere asko sartzen genduan etxean jateko, ta asko balio familirako, naiz erreta eta gordiñik. Denbora askoan irauten zuten sagarrak ganbaran. Saldu ere bai onenak perian neguan, baiña gutxi.

Negu-partean egun onak ere pasatzen genituan. Baiña astoarekin errotara joan bearrak ematen zituan lan txarrak. Ango bideetan ez zan giro ibiltzen. Baiña nai ta nai ez joan egin bear, taloa ta esnea ta beste gauzak jango baziran. Gutxienez lau ordu bear ziran buelta egiten. Ango loiak izugarriak izaten baitziran neguan.

Txandaka joaten giñan anaiak, aste batean bat eta urrengoan bestea. Neri gertatu zitzaidan, egun batez, asto gaixoa lokatzetan sartu ta ezin atera, ta astoa erori ta bertan gelditu.

Nik bakarrik ezin ezer egin, artean gaztea bainintzan, eta aldean zegoan basarrira joan nintzan. Naiko urruti ura ere. Baiña oso ondo lagundu zidan ango gizonak, sasoikoa baitzan. Esan zidan:

- Asto ori etzegok ateratzerik, zakua kendu gabe.

Ala egin genduan. Zakua kendu ta astoa atera; ta lokatzik etzegoan tokian jarrita, kargatu berriz eta errotara. Zakua al zan moduan garbitu piska bat eta aurrera.

Zaku onak izaten ziran, artarako propio egiñak. *Errota-zakuak* esaten zitzaien. Ura ere nekez sartzen zitzaien zaku aieri, euriak arrapatu arren.

Andik aurrera, ura bildurra izaten nuan une artan pasatzeko! Baiña alakorik etzitzaidan pasa geiago.

Etixerakoan, astoa ere aixago etortzen zan. Nere ustez, errotariak ere laka ondo samar kenduko zion noski. Nik ez dakit zergatik, etxerako pozean ni bai beintzat etortzen nintzan; baiña astoari ere artoburu pare bat emateko oitura genduan, ondo mereziak zitualako.

Gero, beste lan bat txarra, txerrikumeak eramatea Billafranka'ra oiñez, beren amarekin. Neguan tokatzen baziran beintzat, lokatzetan ezin atera, eta joan egin bear nola edo ala. Iru-bat illabetekoak izaten ziran. Ta ederki aspertuak, perira iristerako.

Aita an egoten zan tratua egiteko, ura goizago joana, zer prezio egiten ziran jakiteko.

Tratanteak, berriz, zai txerrikumeak al zan merkeena erosteko. Aiek bazekiten txerrikume aiek ez zegoala etxera berriz itzultzerik, leer egiñak egoten baitziran, eta eman egin bear merke, eta aientzat ondo etortzen zan.

Ala, aitak dirua artu ta amari emango zion, bear zituan gauzak erosteko.

Ta gu, zerramari kontu eginda, berriz etxera. Ogia ta txokolatea ematen bazigun, konforme. Askotan, illundu ta etxera iritxi eziñik txerrama.

Astoarekin ta txekorrarekin ere alako moduan ibiltzen giñan. Etxetik goizean illunpetan atera, ta Billafranka'ra iristerako igual amarrak. Arakiñak zai txekorra iltzeko, eta arakiñak bronka igual bota, lenago joan ez giñalako.

Gerora asi zan jendea gurdian eramaten txerrikumeak, ta askoz obeto iruditzen tratanteai ere. Txerrikumeak askoz itxura obeagoarekin iristen ziran perira, ta nekatu gabe gaiñera.

Orrela zan orduko bizimodua. Gure moduan gaiñerakoak ere. Baiña ez giñan ainbeste arritzen, orduan beste biderik ez baitzan ikusten. Eta bide artatik segitu bear, al zan moduan, aurrera.

Udaberrian goiz asten giñan lurak gorritzen artoak egiteko, sail aundiak egiten baitziran, eta danak laiaz gorritu ere. Ura lan nekosoa ta urria! Eta lur-saillak buztin utsak geienak . Batzuk samurxeagoak, baiña danak naiko zekenak. Tellafabrika omen zan aurreko gizaldian.

Gero, lur aiek puskatu edo maniatzen lanak, artoa ta babarruna ereiteko, ganaduakin atzera ta aurrera. Arria kargatu egin bear asko, ezer egingo bazan. Bi edo iru lagun sokorra jo ta jo.

Orduko bei gaixoak ikusten zituzten gorriak udaberrian, artoak egin artean beintzat.

Egunez bero bazan, gauean igual ibiltzen giñan, illargia bazan. Askotan, gauean ganadua berotan baiño obeto ibiltzen zan. Egunez beroak asko ondatzen zituan bei gaixoak.

Oiduan ez zan idi-ganadurik ango basarrietan iñon ikusten. Danak beiakin egiten ziran. Beiak ere al zan modukoak. Ez oso bikaiñak. Argalak geienean, baiña bai ondo zailduak,

Gero deskantsua izaten zuten, arbiak egiteko garaia arte. Orduan berriz ere lan gogorak egin bear ango lurra maniatzen, arbiak egiteko moduan lurra jartzeko preparatzen, area, besabea eta lauortza esaten zitzairen erramintakin.

Atzera-aurrera ibilli, autsa piska bat egin arte. Eta gero arbiak egin agoztuan, ta negu guztirako berdea ganaduentzat. An ez zan beste berderik, eta negu luzea izaten zan, eta gogorra garai aietan, orain baiño txarragoa, nere ustez:

Otea txikitu ta ematen ere aritu izan giñan iñoiz, ganadu antzuai emateko eta abar.

Pentsu gutxi ibiltzen zan garai aietan, eta ganadu argalak.

Udaberrian lana egin bear gogotik, artoak egiteko lurrak maneaten. Baiña nola edo ala egin-egin bear. Artoa ta babarruna asko egin bear urte guztirako. Ez zegoan beste biderik garai aietan. Gosea aseko bazan, egin-egin bear nai ta nai ez.

KAROBIA

Gero beste lantegia, danetan txarrena, karobia preparatzea. Ura bai zala lantegi txarra, ta luzea gaiñera.

Urte pare bat edo iru aurretik. asten ziran preparatzen ura egiteko. An, inguru aietan, ez zan karaitzik, karea egiteko arririk, eta oso urrutitik ekarri bear zan, Txindoki'ko ondotik. Eta asko ekarri bear, karobi bat betetzeko.

Jakiña, auzoak alkarri lagundu egin bear. Bestela, pamili batek ezin egin ainbeste lan astun, eta ala egiten zuten, bai pertsonaz ta bai ganaduz. Alare, orduko jendeak eta ganaduak pagatzen zuten ederki.

Okerrena, arri ekartzea zan. Eta gero, izugarrizko egur-pillak bear izaten ziran. Negu pare bat bear aiek

inguratzen karobi ingurura, eta askotan gutxitxo igual atera.

Pilla izugarriak bear izaten ziran arri-pilla ura ondo egosteko, ainbesteko arri-pilla. Arria egosi egin bear izaten baita suaren poderioz. Eta pentsa: iru egun eta iru gau bear gutxienez, ondo aterako bazan. Ernan, eman suari gelditu gabe! Bi lagun aritu bear txandatur.

Eta jende asko bear izaten zan. Inguruko basarritar geienak txandaka karobia zan etxera, batzuek gau erdi arte ta orduan txandatu, besteak goizean eta besteak eguardian edo arratsaldean. Danentzat naiko zer egiña.

Nik karobi gutxi ezagutu nituan. Iruren bat edo lau. Etxean bat eta auzoan beste iru edo lau. Baiña lan gogoangarriak benetan. Orduan egiten ziren nekeak basarritarren artean!

Orain ere karea badabil paraje auetan. Baiña orduan baiño errezago egingo al da nolabait ere.

Lan gogorra ta arrisku aundiko lana karobi baten lana. Ondo egosi ta dana kare egiten bazan, kare asko ematen zuan karobi batek.

Baiña, gure aurrekoak esaten zutenez, bai desgusto ederrak eman ere. Ustez karobia egosi ta gero, erdia igual arria atera ostera ta ezin ezer egin. Pena galantak pasa bear, ainbeste lan egin da gero.

Len, denbora batean, kare geiago egingo zan. Guk karobi-zulo asko ezagutu genduan beintzat.

Karea oso ondo etortzen zan lur zeken aientzat, piska bat gozatzeko.

Karobia nolakoa zan zertxobait jarri det. Karobi-zuloa zan edo da. Oraindik ere badira zuloak. Gure etxeko terrenoetan bada beintzat bat, oso urruti gabe.

Toki aldapan edo koska aundi batean, tupa-arria zan tokietan, arria basea zan tokietan, zulo izugarria egin bear. Danak igualtsuak. Nik ikusitakoak ala ziran beintzat.

Zuloa biribilla, eltze baten formakoa, eta beko aldetik leio bat sua egiteko, gizona sartu ta atera egiteko aiñakoa. Ez oso aundia ere. Aurreko aldean zabalune aundia izaten zuten.

Gero, kargatzeko, gizon bat artarako izaten zan. Nik bat bakarra ezagutu nuan. Ura ibiltzen zan bakarrik garai aietan. Artarako asko ikusia ta asko jakiña bear zuan izan, eta ala zan gjzon ura, errespeto izugarrizkoa benetan.

Lenbizi, arku atera bear zion, tunel baten gisan. Sua egiteko tokia, azpitik toki aundia. Baiña morterorik gabe, arri utsarekin. Ura inportantzi aundiko lana zan karobi batentzat. Aren gaiñean, kargatu bear zuan gero karobi dana. Gizon arek bazuan meriturik asko, nere ustez.

Dana kargatzean, erriko apaiz jauna joaten zan bedeinkatzera, sua eman aurretik, eta erri guztiak jakiten zuan noski.

Erriak zagi bat ardo ematen ziola esaten zuten kaiobi-jabeari. Ez zan, egun da gau, ardorik paltatzen. Lan artarako zerbaiten bearra ere bai. Gero asko edan gabe ibiltzen bagiñan ere, orduan igual geitxo ere batzuek, tamalez. Baiña beti izaten ziran tartean orduan ere, beti bezela.

Karobia egosi ta gero, sua itzali, ta ondorengo egun batzuetan bere artan egoten zan karobia. Baiña oztutzen danean, azpiko arku ura erori egiten zaio ta orduan asi bear karea ateratzen, soroetara eramate ko.

Oso lantegi txarra ura ere. Beko ataka artatik atera bear dana. Palaz gurdira bota eta sorora eraman da zabaldu. Deskuidoan aize piska bat bazan, ezin abantatu luzaro, eta txandatu egin bear maiz, iñor baldin bazan beintzat lagunik.

Gure aurrekoak, zenbat eta azkarren botatzea nai izaten zuten. Kare egin berria askoz obeagoa zala, eta lurrak prest eduki alde aurrez, iñondik al bazan beintzat.

ORDUKO LAN ZAKAR AIEK

Beste lan bat, oso nekosoa ta urria ura ere, esku-zerraketa. Materiala zerratzea zan. Guk etxe berria egin genduanean, material danak eskuz zerratu ziran.

Ni lan artan gutxi aritu nintzan. Gure aita ta anaiak bai saio galantak. Etxe batek puska asko bear izaten du. Garai artan, barrengo lan danak egurrez egiten ziran. Ez zan ormigoirik ibiltzen ezertarako ere.

Gero, beste lantegia ikazkintza zan. Lan astuna. Zikiña gaiñera. Artan ere aritu giñan. Udara batean egin genituan zortzi txondar edo zerbait. Orduan ere diru piska bat artu egiten zan ikatza salduta. Premia diruarena; ta gutxi, asko estimatzen zan garai artan.

Lau lan zakarrenak oiek ziran: karobia egitea, ikazkintza, zerraketa eta laiaketa.

Gure aita, ikazkintzan ta zerraketan mendian ibillia gaztetan, gizon fuerte oietakoa zan, eta artetsua gaiñera edorein lanetan.

Baiña ez zan beti mendian ibillia. Baita Donostia'n ere piontzan. Antigua'ko tunela egin zanean, an aritua. Eta askotan esaten zigun, Antigua'ko tunelako fatxadako arri aiek aren bizkarrean jasoak zirala.

Ala esan omen zioten pioiai enkargatuak: aber boluntariorik bazan arri labratu aiek bizkarrean jasotzeko, argiñak pronto jartzean. Ez zuala beste lanik izango, eta egunean pezeta bat geiago jornala emango ziotela.

Eta gure aita orrek bai: konforme zala ura arri aiek jasotzeko.

Ala segitu omen zuan bukatu artean. Egonaldi ederrak egiten omen zituan. Argiñak arriak preparatu-zai askotan.

Gure aita ataundarra zan. Ama berez angoa. Alkarren parienteak lendik ere. Bigarren abizenak igualak zituzten beintzat.

Gure ama ta iru aizpa ziran, ta anai bat. Anai ura, kale-zalea. Nik Donostia'n ezagutu nuan beintzat,

drogero. Ez zan basarri-zalea izango nunbait. An ainbestean biziko zala uste det nik.

Gure aita ara joan zanean, baztarrak oso zikinduak omen ziran. Baiña garbitu zituan ederki, ni azitzerako. Bazan an sagarra ta gaztain ederrik.

Eta esaten zuan, baztarrak garbitu zituanean, nagusiak etxea saltzera atera, eta dirurik ez ta besteren diruarekin erosi zutela. Andik urte batzutara, materialak saldu zituzten eta zorrak pagatu.

Aritz-arbola asko zan, eta gaztaiña ere bai, postetarako modukoak. Aritzakin, trabiesak eta apeo tenteko asko, ta gaiñerako egurrakin ikatza egin genduan.

An, inguru aietan, geiagok ere saldu zituzten garai aietan, eta egur aiek ez zegoan kamiora ateratzerik osorik, eta Santander aldeko kuadrillak aritu ziran egur aiekin trabiesak eta apeoak egiten.

Gure etxean egon ziran ostatuz eedo apopillo. Aiek ere ez zuten lujo aundirik ibiltzen jan-edanean eta jazten.

Goizean, gosaltzen, urdai-puska bana, ta gaiñera ez puska aundiak ere. Ogia jaten zuten asko, eta ura edan gototik. Aiek ez zuten ardorik probatzen.

Eguardirako berak egosten zuten eltzekada aundi bat babarruna mendian bertan.

Eta gauerako gure etxean beste eltzekada aundi bat urdai-puska batekin. Babarruna jan eta urdaia partitu danai, ta ogia jan da ura edan da lotara. Baiña ez oiera. Belar-pillan lo egiten zuten. Ez zan oirik aientzako.

Jaietan ere lana egiten zuten. Illunabarrean, lanri goiz utzita, Abaltzisketa'ra joaten ziran. Andik aste guziko ogia ekartzen zuten geienean, eta urdaia ere bai. An ardo piskaren bat edan da kantari elortzen ziran. Baiña oso berandu. Ez bein ere garai onean. Beti bezela babarrun-jan bat egin ta belar-pillara lo egitera.

Ango rmaterialak kamiora ateratzen mandazaiak ibilli ziran. Abaltzisketa'ra aldeena. Naiko urruti ura ere. Ederki kostako ziran, bear zan tokira iristerako. Garai aietan diru gutxik asko balio zuan. Baiña egur-jabeak asko ezin artu. Urrutiko gauza bideak jan: transporteak.

Andik urte batera edo bira, egin zuan modua iru anai batera sartzeko gure aita orrek, eta Beasain'go fabrikan asi ziran.

Oiñez joaten ziran Zaldibi'raiño. Andik autobusean pabrikara. Bidean bi ordu bear gutxienez gure etxetik Zaldibi'ra. Baiña orduan, diruaren pozean, ez zan urrutirik.

Iruren arte, amabostean, diru-mordoska ekartzen zuten etxera. Bazan aien bearra. Gure gurasoak, ta danok batera, pozak.

Gero, etxea oso zaarra geneukan. Ez zegoan berritzeko modukoa. Paretak ere oso txarrak zituan, eta ura bere artan utzi ta beste etxe berria egitea pentsatu zuan gure aita orrek, lengoaren kontra. Baita egin ere.

Lenbizi, basarri bat utsa bazegoan an auzoan, ta ura erosi zuan, terreno-puska batekin, arria ta tella izan zedin. An arri gutxi baita oso.

Etxe zar arekin bentaja aundia izan genduan, etxe berria egiteko garaian: ango arriak. Materiala ere on asko zuten lengo etxe zar aiek, eta asko baliatu giñan aiekin: tella eta lata eta abar.

Etxea egiten asi baiño len, aurreko uda azkenean egin zuan legorpe bat egur zar aiekin, negurako gaztaiñak edukitzeko asmotan.

Baiña gaizki atera zitzaizkion gauzak, tamalez. Eguraldi euritsuak ziran, eta egur zar aiek busti ta oso legunak gelditu; eta legorpea egin zuten. Baiña posteen txarrantxak kentzen ari zala, postea irristatu beetik, eta etxe-borde dana bere gaiñera erori zitzaion eta min aundiak artu zituan.

Anka bi lekutan autsi, eta buruan ere punto bastante eman zizkan sendagilleak. Pratikantea ta

sendagillea, biak egin zioten kura, eta etxean egon zan negu artan. San Simon eguna zala esaten zuten gure etxean, min artu zuan eguna. Negu ura pasa ta urrengo udaberrian, bederatzi eguneko misioak izan ziran gure errian. Jesuita Aita Aizpurua izan zan misiolari.

Gure aita orrek esan zigun, arek nai zukela joan sermoiak entzutera. Ordurako, bi makillaren gaiñean ibiltzen zan. Baiña ezin joari errira. Esan zigun:

Ni gurdian joango nauk, koltxoi pare bat jarri azpian da oso ederki.

Ala eraman zuten gure bi anaiak. Misioetako denboran ostatuan egon zan, lagunakin tertuliak egiñez.

Bertsoak ere jarri zituan misioari buruz. 1926'garren urtea zan urte ura. Nik ikasi nituan. Orain gutxi dauzkat gogoan. Baiña bi edo iru jarriko ditut emen. Orrela zan asera:

Milla betzireun kunplitu eta
ogeigarrenge urtian,
misio on bat izandu degu
beratziurren batian.
Premiazkuak egongo giñan
pekatarien artian,
munduak oso engañaturik
eta itxumen fuertian,

ditxa ederra oraintxen degu
aprobetxatu gaitian.

Don Nikolas Telleria da
gure parroko maitia,
misio on bat ekarritzeko
izan du borondatia.
Gizon ona ta leiala degu,
jakinduriaz betia,
bere ardiai zabal egin nai
zeruetako atia,
orren biotzak sentituko du
gu infernura juatia.

Gora parroko maitagarria,
gora aiuntamentua,
ez dakit ondo beteko dedan
oien kontentamentua.
Obra onari segitutzeko
oiek badute kontua,
obligazioa kunpli dezagun
orain da pentsamentua,
oien laguntzaz gorde dezagun
Kristoren lege santua.

Gure Zaindari San Migel degu
oso gerrari abilla,
zeru goietan irabazia
Luziperrek zuen silla.

Esaten digu ez arrotzeko,
obego dala umilla,
iltzen geranen etor dedilla
gure animaren billa,
besterik ez det nik desiatzen,
ala gertatu dedilla.

Gero misiolaria andik Abaltzisketa'ra joan zan misioak ematera, ta an bertsopapera pranko saldu genduan, eliz-atarian jarrita, misioetako denboran.

Gero gure aita ori oso ondo jarri zan, ta asi zan etxea egileho moduak egiten bereala.

Ekarri zituan Ataun'dik argiñak. Bere parienteak oso argin onak ziran iru opizial. An bazan beste arotz bat, beti basarriz-basarrri ibiltzen zana. Eta bera ere arotza zan. Danon artean bereala eman genion tellatua etxe berriari; eta, bein legorpea egin ezkeru, ez zan eguraldi txarrik barrengo lanetan .

Material asko zegoan lendik preparatua. Baiña dana egiteko ez zan iristen, eta berriz zerraketan ari bear batzuk.

Eta besteak, ura ekartzeko moduak egiten. Baita ekarri ere ura sukaldera, an bizitzen jartzerako. Gauza izugarria zan garai aietan ura fregaderan izatea. Oso toki gutxitan zan oraindik ura etxeetan.

Eta argirik, pentsatu ere ez eletrikarik. Petrolio-argia geiena. Kinka edo parola, argjzaia edo kandela, arekin ibilli bear, al zan bezela.

Ordurako bazituan asmo berriak aitak *luz eléctrica* jartzeko. Baiña lan aundiak egin bear eta lan ura luze samar egin zitzaigun. Etxeko terrenoan egin nai iñor endredatu gabe.

Erreka txikia baitzan, depositu aundia egin bear ura edukitzeko. Beslela, ur gutxi baitzan udara-garaian; ez zala argirik izateko urik, bear ainbeste, eta ala egin bear. Baita egin ere depositu aundia. Baiña asko kostata egin zan.

Argia gauza ederra zan garai aietan. Ez zan errian artean iñun ere eletrikarik, eta jendea arritu egiten guk aigia jartzearekin. Ala egin genduan, baiña pamili batentzat naiko gastuak egin ziran.

ARTZAI-MUTIL

Gu gaztetan ondo zailduak giñan. Ni neroni ere, amabost urte nitualarik, artzaimutil egon nintzan, etxean geneukan artzaiarekin; eta ez, gaur bezela, zakurrarekin, batere zakurrik gabe baizik.

Makilla ta zigorra eskuan, korri ara korri onera ibilli bear egun guztian geienez, barruti onen bat ez bazan beintzat.

Eguardi arte guk ez genduan ardirik barrutian sartzen bein ere. Basoan edo mendian ibiltzen genituan. Arratsaldean barrutira, larre ona zan tokira edo al zan modukora. Beti oso ona ez zan izaten garai aietan.

Artzai asko izaten zan denbora aietan, eta billatzen ziran inguru aietako larreak ederki. Nere urtez, bei-ganaduentzat kaltegarri etxean edo inguruan artzaia izatea. Udaberrian ganadu argal asko ikusten zan

beintzat. Sos batzuk uzten zituan artzaiak, eta aiek ere ondo etortzen, abono piska bat erosteko ta abar.

Ni morroi egon nintzan nagusia mutilzarra zan, eta ama oso edade aundikoa zeukan. Bazituan bere etxean bi bei eta txerriak eta egaztiak eta abar. Abaltzizketa'ko elizaren ondoan bizi zan, ama zarrarekin.

Gure etxetik ordu erdi bat bear zuan gutxienez. Egunean bi ordu, bi buelta egin bear baitzitian egunero. Goizean, ardiak larrera atera, ni bakarrik utzi ta arek ganaduak gobernatzera joan bear zuan.

Gero neri bazkaria ekartzen zidan, da bazkari ona gaiari aietarako: potajea naikoa, urdai-puska batekin egosia; eta, bestela, zezin-pusketa on batekin. Eta, edateko, zatoa ardoarekin; edo, bestela, sagardoa ere bai batzutan.

Guk ala egiña genduan tratua: bazkaria emango zidala; ta, gaiñerakoan, etxean jan ta lo, eta soldata illean sei duro. Ala pasatu genduan negu ura.

Baina gizon aren ibillia ez zan ederra izan negu artan. Gazta egiten asi zanean, gure etxean gazta egin da gazura bizkarrean artuta joaren zan bere etxera gauean illunpetan. Etxean txerriak edukitzen zituan, eta aientzat ondo etortzen gazura.

Aren bizimodua ere gogorra zan benetan, eta urrengo neguan Abaltzisketa'n etxetik urrean ardiakin gelditzeko modua egin zuan. Baita morroia artu ere negurako ustez, baiña alde egin zion .

An etorri zan gau batean gure etxera, arren ni joango nintzan; morroiak alde egin ziola; oso gaizki gelditu zala bakarrik; soldata ona emango zidala; inantendu ere ondo egingo ninduala ta abar. Mantendu ta zortzi duro emango zidala illean.

Ala joan nintzan bigarren neguan, amasei urterekin. Ondo mantendu, eta jantzia ere bujanda aundi bat erregalatu zidan.

Garai aietan, artzai-mutillak, illean sei duro geienak eta bazkaririk ez, egunean bi otordurekin, ibiltzen ziran. Goizean gosaldu ardiak ateratzerako, ta gaua arte.

Bailia neri egunero bazkari ona eramaten zidan: potaje ona, urdaiarekin edo zeziñarekin egosia, ta gazta-pusketa bat eta naiko ogia, eta zatoan ardoa edo bestela sagardoa ere bai batzuetan.

Arkumeak saltzen asten zanean, larunbatetan Tolosa'ra joan bear aiek saltzera. Aberekin zestotan eramaten zituan. Abaltzisketa'tik biraje dezentea Tolosa'ra. Bidean ere denbora asko bear. Ta goizean goiz atera bear izaten zuten, aren moduan, gaiñerakoak ere. Ta ni bakarrik egun guztian.

Baiña portatzen zan alako egunetan. Barruti onenak edukitzen genituan izendatuak, eta garaiz etortzen zan illunabarrean. Ekartzen zidan zerbait erregalo, karameloren batzuk-edo, eta ni kontentu.

Negu ura bastante ariña joan zan eta ondo igaro genduan. Baiña izan genduan orduan ere naiko suerte txarra.

Guk ardiak edukitzen genituan jabeari, etxea erre egin zitzaion. Tamalgarri gertatu zan danentzat. Etxea erre zan egun argiz arratsalde batean, San Gregorio egun batekin ain zuzen. Nere nagusia Tolosa'n gertatu zan.

Ura andik etortzerako, guk ardiak edukitzen genituan borda, ganaduz betea zegoan. Baiña diskusio aundia izan zuten. Nere nagusiak borda ura artua zeukan mendira joan arteko. Baiña jende asko bildu zan, da jendea borda-jabearen alde atera zan.

Ala zioten geienak: andik aurrera ardiak gauean kanpoan egon zitezkel.

Ala egon bear izaten zuten beintzat, ta etxetik bastante urrutian gaiñera. Goizean, egunsentian, egunero joan egin bear ardiak zeuden lekura, ia Larraitz'ko ondoraiño. Ez zan izango orduan gaur aiña lapur, eta ala bear ko. Ez zan ezer paltatu ta ala obe danontzat.

Ala pasa genduan negu ura.

Baiña orduan, nik uste, orain baiño udaraberri obeak egiten zituala. Bein Pazkoak pasa ezker, asten ziran artzaiak mendira joaten. Nere nagusia ere garaiz joaten zan.

Bere txabola ere bajuena zuan. Bajuena Alalar'en. Txindoki'ko bajuena ura izango zan noski, eta punta berria an asten zan lenbizi.

Gizon zintzoa ta langillea zan, bat bazan. Artzaietan langilleena bai, nere ustez. Ura etortzen zan goizean, gazta egin, eta gazura bizkarrean artu ta etxera. Askotan egunero etorri bearra zeukan ganaduak gobernatzera, eta txerriak edukitzen zituan. Baiña etxean ez; mendian.

Artzaiak, geienak eduki bear txerriak, gazura aprobetxatzeko. Baiña arek ez zuan txerrikirik eta etxera ekarri bear. Baiña gero egin zuan txerrikia, mendian bertan.

Andik laster ama il zitzaion eta ezkondu egin zan emakume jator batekin. Iru seme-alaba izan zituzten. Neri, bodetara eraman da guztia egin zidan. Oso maiteak giñan beti.

Gero, ikusten zuten oso bizimodu txarra zeukatela. Ardiak danak saldu ta basarri zabal bat erosi zuan Orendain'en, eta an bizitu ziran, zarrak bizitu ziran arte. Ez dakit geroko berririk.

Nere nagusi izandako ura, azkeneko Tolosa'n tokatu ikustea. Egonaldi atsegin bat egin genduan. Ezin apartaturik egon giñan biok. Ordurako oso zaartua zegoan eta ala esan zidan:

- Josepetako zelaira arte.

Badakit urte askorekin il zala, lana erruz egiña izan arren. Oso gizon sana ta sinismen aundikoa zan. Da, berak esan zidan bezala, Josepetan eta zeruan alkar ikusi dezagula.

ETXE BERRIA

Seguru esateko ez nago, baiña uste det urte artan egin genduala etxe berria. Eta gure aitak berak egin zituan oiak eta jergoiak ere.

Bitartean ez zan gure etxean jergoizko oirik. Lastaida izaten zan: zaku aundi bat txurikiñakin betea. Aren gaiñean koltxoia.

Txurikiña zer dan gaurko gazteak ez dakite. "Txurikiña da, artoburuak izaten duen gaiñeko azala.

Txurikiña berritan ondo gelditzen zan. Baiña bein denbora askoan bazegoan kanbiatu gabe, zimurtu ta autsa egiten zitzaion. Maiz samar kanbiatu egin bear, al bazan. Bestela, oi kaskarra gelditzen zan.

Gu ala azi giñan, amabost edo amasei urte arte gutxienez, ta gure antzera gaiñerakoak ere, garai aietan. Okerrago ere bai batzuk oi-kontu ortan.

Jerigoiak ez baitziran egun batetik bestera egiten. Ala ere, esan oi dan bezela, bakoitzak bere kabia gozo.

Baiña lastaidatik jergoira alde aundia billatzen zan. Ori ezagutu zuan jendeak azkar. Nik uste urte gutxian jergoi asko egin zala basarrietan.

Garai aietan koltxoi onak ibiltzen ziran, artzai asko zan inguru aietan; eta illea, ardi-illea, aixa lortzen zan.

Gure etxean beintzat, gure aitak ari asko egiten zuan neguan, eta guk, iru anaik, ikasi genduan galtzerdia egiten. Aitak aria egin da gu semeak galtzerdia egiten aritzen giñan neguan.

Guk galtzerdi-paltik ez genduan izaten, baiña zakarrak. Negu-partean an nunbait. Baiña udaran ez i n abantatu. Azkurea ematen zuten.

Oiñetakoakin ibiltzen giñan gaizki oso. Beilarruarekin egiten ziran, gure gazte denboran, oiñetako danak. Eta ez zuten ez arrimorik eta ez legorrik eguraldi txarrean. Goizean ankak busti ta egun guztian igual anka bustiak.

Gero sumatu zuten automobilien kurpillakin abarkak egitea. Aitak kurpilla eraman zuan nunbaitetik

eta asi zan abarkak egiten. Larruzkoak baiño askoz obeak ziran; eta gu ez giñan gutxi poztu, aiek jantzi ta ibiltzearekin. Ez ziran oso txukunak; baiña oso fuerteak eta ankak legorrigo ibiltzeko modukoak beintzat, askoz ere.

Ala segitu genduan bolara luzean. Nik amazapi urte nituala, udazken batean, pasa genituan bi edo iru illabete ikazkintzan, oso kaskarrak, etxetik bastante aparte.

Artu zuan gure aita orrek egur-pilla aundia ikatza egiteko, eta bai egin ere ikatz-pilla aundia. Oso ondo atera zala esaten zigun ikatz aiekin, eta kontentu zala.

Baiña lana asko egin da gero, okerrena zana, etxera egunero joateko oso urruti zan; eta bertan, an inguruan zegoan borda zar batean, egiten genduan lo, ta bai otorduak ere, nola edo ala. Txillarra-puska batzuk bola lurrean, eta beste belar ondu piska bat, eta ura zan gure oia edo lo-tokia. Ura poza, lantegi ura bukatu ta etxera joateko!

Gero, andik laister, ezkondu zan anai zarrena etxera, errian bertako emakume on ta jator batekin. Ez nolanaiko emakumea uraxe. Arako modukoa, bat bear bazan.

Zortzi seme-alaba azi zituzten: sei mutil ta bi neska; bat baiño bestea bikaiñagoak. Zenbat neke ta

ibilli txar ainbesteko familia azi artean! Destierro artatik Billafranka'ra eta Zaldibi'ra, an ez zan beste biderik. Errian ez baitzan ezer egoten jateko gauzik.

Gizona ere perira maiz joango zan. Baiña andreak bakarrik etxera etorri bearko zuan. Nere ustez, gizonak askoz geiago disfrutatzen zuten. An emakumea zan esklaboa. Ala esaten det nik nere baitan.

Aiek egin zituan lanak izugarriak izango ziran, pamili ura aurrera ateratzen; ta ondo atera ere. Danak sano ta fuerteak. Gure Jainkoak emango al zion betiko saria zeruan! Ondo merezia izango zuan, nere ustez.

Lenbizi, senarra il zan. Eta, ura il zanean edo geroxeago, seme zarrenarekin bakarrik gelditu zan, eta andik alde egin zuten eta etxea utsik dago aspaldian. Gaurko jendeak ez dira an bizitzeko modukoak, eta arrazoi dutela uste det nik neronek ere.

LANERAKO DEIA

Nik, emeretzigarren urte inguruan, lanerako deia izandu nuan. An auzoko lagun batek esan zidan, ura lanean zebillen tokian, langilleak artzen zituztela. Egunean zortzi pezta pagatuko zidatela. Etxean konformatu ziran ta asi nintzan. Ordurako jornal ona zala, baiña apopillo jarri bear.

Lantokia, Andoain'dik Urnieta'ra kaminoa zabaltzen aritu giñan, karrerak jokatzeko.

Artean ez zegoan aurrerapenik. Dana eskuz egin bear: pikatxoiarekin arrotu, atxurrarekin kopa bete, ta karroa kargatu ta abar. Ango lana ez zan ain astuna, lenago ondo zailduak baiginan gu lanean.

Baiña euriarekin ez zegoan lanean aritzerik, eta oporra igual. Asteko jornala txikia gelditzen ta apopillotza igual pagatu bear : eguneko iru pezeta.

Jaietan parranda igual. Banuan lengusu bat, kalean bizi zana. Arekin juntatzen banintzan, etxerako dirurik ezin aurreratu.

Ango maldizio ta izkuntza neri etzitzaidan gogozko. Kuadrilla aundia giñan ta askoren tartean beti izaten berdeak edo mingain txarrekoak. An ere baziran sobra ta geiegi, ta aspertu ere egiña nengoan.

Ala nengoala, nik ez dakit nundik nola, lengusuak esrin zidan jai batean:

- Nai al dek morroi joan Donosti'ko Antigua'ra?

Eta nik esan nion:

- Bai, motell. Emen ez diagu ezer sobratzen, da nik probatuko diat ura ere.

Ta nere lengusuak, beste gizon batekin, eraman ninduan basarri ortara: Aiete'ko Aitzetsu basarrira.

Bi nagusi zeuden: aita ta suia. Amabost eguneko proba. Orduan ala izaten zan oitura, eta orduan soldata erabaki. Guk ere ala egin genduan: illean amabost duro. Baiña an dirua sobratu egiten nuan, piska bat beintzat. Ez bainuan batere gastatzen.

Jaian ere ez nintzan iñora joaten. Siesta egin arratsaldean, ta aur-kontu igual ibiltzen nintzan, bi aur bazituzten ta aien erreparatzen batzutan. Nagusi zarra asko ibiltzen zan. Apusturik iñon bazan, gustatzen zitzaion piska bat jokatzera ere, dirua ibiltren baitzuan patrikan.

Baiña nagusi gaztea, suia, oso zintzoa zan, eta langillea gaiñera.

Barazki asko egiten zuten, eta ganadu ederrak egoten ziran eta esne asko ateratzen zuten. Ango aitona, beiakin ta gurdiakin, egunero joaten zan San Martingo plazara.

Oso ondo jaten zan etxe artan. Gaiñera, errespeto aundiko familia danak, bata besteakin ondo konpontzen ziranak.

Nik an ikasi nuan baratzako lanetan, ta baita ere ganadu gobernatzan. Neretzat suertea izan zan ara joatearekin, Andoain'go kuadrilla utzi ta pamili on batera joan nintzalako. Andoain'en ez nuan gaizki ikasi besterik egin. Ango maldizioak neri ez zidaten onik egiten. Ara joan artean, ni maldizio gutxi entzuna izango nintzan, eta min egiten zidan itz itsusi aiek entzuteak.

Tarnalez, gaur ugaritu bazaigu ere itz gozoen partez, ez dira konturatzen zeñen itsusi ematen duten orrela itz egitearekin. Penagarria benetan, artu degun oitura itsusi ori.

Oitura txarra artzen da samurrena. Uzten da zaila. Tamalgarria benetan, entzuten ditugun itz zatar oiek entzun bearra gure Euskalerrri maite ontan.

Ni oso gutxi ibiltzen naiz eta gutxi entzuten det olako izkuntzik. Baiña iñoiz entzutean, pena aundia ematen didate neri. Ez dira konturatzen zer itsusi agertzen diran orrela itxgitearekin.

Gizon edadetu bati bein entzun nion, orain dala berrogei ta amar bat urte inguru:

Garai aietan, Pakoazkoa egitera, ia danok joaten giñan, ta joan da konpesatzera praille batengana gizon ori ere; ta prailleak, maldizio esateko oiturik bazuan galdetu ziola, eta gizonak:

- Bai, jauna.

Ta ezin zuala utzi oitura txar ura.

Orduan eman zion penitentzia prailleak, maldizioa esaten zuan bakoitzean, lurrari muin emateko. Ordutik utzi zuala oitura txar ura, ta askoz obeto bizi zala geroztikan.

Obe izango litzake, gaur ere egingo bagendu. Baiña oso zaila izango dala derizkiot gaurko egunetan, tamalez.

Nik Aiete'ko basarri ortan pasatu nuan soldadu joan arteko denbora. Andik ikasi nituan instruzioak ere

soldadu sartzeko. Egunez lana egin da illunabarrean instruzioak ikasi.

Donostia'n, soldaduska ere, andik serbitzea nai zuten aiek. Baiña oso urruti gelditzen eta Loiola'n jartzea erabaki genduan, kuarteletik urrean zegoan basarri batean, da oso ondo pasa nuan soldaduska.

Orduan egin nuan andregaiia, eta gero jarriko ditut andik aurrerako kontuak edo pasadizoak, eta gero arte.

BI ERIOTZ

Gure arteko desgrazi
aspaldi pasiak,
emen ezin ipiñi
ditezke guziak;
gu gazteak giñala
Goierrin pasiak,
esan leike dirala
gu geuk ikusiak.

Ni nerez Gaintza'koa naiz, baiña Abaltzisketa'ko
mugan zan gure jaiotetxea, eta bi errietako berriak
igualtsu jakiten genituan.

Nik amar urte edo amaika nituala pasatu ziran onoko bi desgrazi auek Abaltzisketa'n, nik odo ezagutzen nituan bi pamilitan.

Bat orrela gertatu zan: il zana bertsolaria zan, eta gaiñera perratzaillea.

Arratsalde batean, tabernan, ardo-puska bat ondotxo edan ondoren noski, gure bertsolari ta perratzaille ori bertsotan aritu omen zan kuadrillan, besteren batekin, ustez broman.

Baiña kuadrilla artan bazan gizon bat, ez-izena edo izengoitia *Mandua* deitzen ziotena. Gizon aundia zan eta fuerte oietakoa.

Gizon ori omen zan *Mandua*'rekin apustua jokatua eta irabazia: kilo bat baba jaten, *Mandua*'k gordiña ta gizonak egosia. Orregatik deitzen ornen zioten izengoitia *Mandua*.

Gure bertsolariak onela kantatu omen zion: nola zan perratzaillea, arek perratuko zuala oraindik *Mandua*, eta abar.

Eta gure gizon orrek sentitu du nunbait gogotik kuadrillan ura entzun bearra, eta atera besteak baiño len tabernatik, eta ura pasa bear zuan bidean gordeta jarri estaka aundi batekin. Eta joka iltzat utzi zuan gizon gizarajoa.

Baiña urrengo goizean oraindik bizirik topatu zuten etxeakoak. Berak aitortu ornen zuan zeñek puskatu zuan. Baiña egun artan bertan il zan, elizakoak egin ondoren. Goian bego.

Beste desgrazi bat ere gure etxetik oso urrean pasatua zan Abaltzisketa'n.

Bi auzoren artean beti sesioan zebiltan. Bide baten kasoaz zuten. Batek gurdibidea bazala, ta besteak ez zala, andik pasatzen zan askotan, bide lasterra zalako noski.

Bat zan gizon edadetu samarra, amar aurren aita, andik sesioko bide ortatik pasatzen zana. Jazinto zuan izena.

Eta bestea, bidejabea, mutil gazte bikaiña, ogei ta bost edo sei urtekoa. Joxe zuan izena.

Egun batez, Jazintok semea zuan bialia beiakin eta gurdiarekin, iñular batean.

An bide artan pasatzen asita, alto eman zion Jazintoren semeari Joxe bide-jabeak. Ez zala an pasako.

Jazintoren etxetik oso bertan ziran, da zer egin? Mutikoak aitari esan dio:

- Joxek ez dit uzten bide ortan pasatzen gurdiarekin da beiakin.

Baita aitak, Jazintok, artu du labana aundi bat ta joan da Joxerengana furian.

Ordurako illuna ta ezta ikusi ere Joxek besteak labana zuanik. Esku utsean zala uzte Joxek.

Baiña borrokatu ziranean, labana sartu zion tripatik; eta andik bi egunera il zan, alako mutil-puska, ogei ta bost urterekin.

Jazinto kartzelara eraman zuten, eta andrea an gelditu zan amar aurrekin. Gorriak ikusi bearko zituan gaixoak, aiek aurrera ateratzen.

Il zana ere rnaiorazkoa zan, eta aita gaixorik zeukan aspaldi artan, eta ez zan lanerako gauza.

Orra: bi pamili kasikan ondatuak gelditu zirala esan zitekean, asarre piska batengatik.

Etsaiak indar aundia nunbait; eta gizona da, etsaiak mendean artzen badu, munduan dan piztirik txarrena.

Orregatik pasatzen dira olako gauz negargarri eta samiñak munduan. Eta onoko bertso auek jarriko ditut emen, nik sumatuak:

Asarreak gauz onik
ez dakar iñontzat,
neri beintzat alaxe
iruditutzen zat.

Sesuan dabiltzanak
galera bientzat,
irabazirik bada
abogaduentzat.

Lagun urkoa maita dezagun
beti kariño onian,
al dan guzian lagun egiñaz
premier dagoenian.
Ori egiten baldin badegu
Jainkoaren izenian,
arrera ona izango degu
emendik goazenian.

EZKONTZA

Garai aietan, soldaduska, al zuanak, pagatu zerbait ondotoxo eta emen, Donostia'n, pasatzeko modua izaten zan. Eta neri aitak esan zidan, sekretarioak esan ziola, bostgarren anaia nintzan ezkerreko, oso gutxirekin libratuko nintzala ta kuotako egin nintekela. Eta ala egin genduan, oso gutxi pagatuz.

Baiña ortarako, instruzioak ikasi egin bear, zerbait ordainduta kuartelera joaterako; eta baita ere bi traje, bat udarako eta bestea negurako. Mantendu ere kuarletek kanpoan.

Gu basarri batean egon giñan, eta arratsaldeak geienean jai ematen zizkiguten eta lan asko egiten genduan basarrian. Gu ondo zailduak egon len ere

baserriko lanetan. Baiña egunean amar erreal pagatu egin bear, eta ordurako naikoa guretzat. Baiña oso ondo ematen ziguten jan eta edan.

Guardia tokatzean, kuartelean bertara eramaten ziguten bazkaria eta aparria basarritik.

Gu bi lagun egon giñan basarri ortan. Oso mutil ona nuan nik lagun ori, eta beti alkarrekin ibiltzen giñan.

Jaietan beti Txomiñene'ra joaten zan garai aietan inguru ontako gaztedia, bai soldadua, bai paisanoa, danetik. Jai batean, nere lagun ori etxera joan zan, eta ni joan nintzan, beti bezela, Txomiñene'ra .

Eta an billatu nuan lagun bat. Goierri'n auzoan bizituak eta alkar maiteak giñanak. Gizon leiala neretzat. Ta zein izango ta Polipaso aizkolariaren aita zana bera. Alkargana inguratu giñanean, esan zidan:

- Meriendatu egin bear degu alkarrekin, ta nik pagatuko dizut merienda zuri.

Nik ura bear.

Txomiñene'n jende asko zebillen, eta esan zidan:

- Goazen Santiene'ra. An rneriendatuko degu lasai biok.

Bai bapo meriendatu ere. Biok umore ederrean jarriak, eta ura Ernani'ra tranbean eta ni Txomiñene'ra.

Beste soldadu lagun batek esan zidan:

- Nun ibili aiz, orain arte onera azaldu gabe?

Eta nik esan nion:

- Meriendatzen, motell.

- Beajondaikela! Neska laguntzera joateko ez ago gaizki orduan. Joango al aiz?

Eta nik esan nion:

- Igual, motell.

Ni orduan alai-alai jarria bainengoan. Bestela kortoa nintzan. Lenbiziko aldia ura izan zan. Ala bearko zuan. Beste lagunak ezagutzen zituan neskatzak, baiña nik ez ordurartean. Eta andik urte beterako matrimonio giñan.

Nik uste izaten det Jainkoa izan zala gure tarteko edo laguntzaille; premi ederra zegoan tokira etorri nintzala.

Aita ta ama bizi ziran beren alaba bakarrarekin, ta gurasoak bastante edadetuak gaiñera. Aien poza ez zan nolanaikoa, nik egiten nioten laguntza ikusita gure basarri zar ontan.

Gurea ez. Gu maizterrak eta errenta aundia garai aietarako: zortzireun pezta urtean, ta kontribuzio, seguro sozialak, oillaskoak bi pare eta berdura goxoak eta abar ta abar. Zintzo jokatu bear zan eta umil. Ez zegoan zerekin arroturik.

Al zan moduan, lan da lan, gure moduan beste geiago ere ikusten baitziran garai artan, egunero Donosti'ra joan bear. Periodikoa gure amagiarrebak txintxo ekartzen zuan. Neri asko gustatzen eguneko berriak letzea, eta kontentu geratzen giñan danok. Ondo konpontzen ginan eta ura zan gure aberastasuna.

Etixerako bear ziran gauzak artuta, sobratzen bazitzaion, neri ematen zidan, bazkaltzeko garaian geienean, gutxi edo geio, jasotzeko esanez; eta nun gastatuaren paltik ez orduan ere.

Pentsu piska bat eman bear ganadu esnedunari beintzat. Asko ezin eman, litroko bi erreal esnea saltzen genduan garai artan-ta. Esne-bei txikiak genituan, lau bei, ta esne asko ezin bildu. Orduan ere txintxo ibilli bear pentsua.

Baiña jaietan plaza irikia izaten zan; eta, tratu gozoa zan garaian eta asko samar, ama ta alaba biak joaten ziran plazara, eta nik etxeko lanak egiten nituan, eta sos batzuk ekartzen bazituzten, kontentu danok.

Ala bizi giñan: poliki, arrokeri asko gabe ta umil; traje berri asko egin gabe, baiña al zan moduan.

GERRA

Gu ezkondu ta andik zazpi urtera sortu zan gerra zibilia edo zalako ura; eta gu emen, erdian, oso gaizki pasatu genituan iru bat egun, etxetik irteteko bildurrez. Kuartelezik militarrek eta San Marko'tik gorriak, tiraka kañoiak. Gu erdian.

Gose ederrak pasa genituan geuk eta baita ganaduak ere. Zer janik ez ta marruka gaixoak.

Gero, kuartelak errenditu ziran ta gorriak nagusi jarri ziran.

Gorriak edo zuriak, aien mende egon bear. Lengoak txarrak baziran, aiek ere besteen antzekoak guretzat, edo txarragoak noski. Txekor kozkor bat eraman zuten gure etxetikan ere, gero ordaintzekotan.

Len justuan zebillenentzat alderdi ederra orduan ere, gaitza berriak egiteko.

Guretzat beti eziña ugaritu. Batekin edo bestearekin, guretzat galera eta laguntza gutxi. Ala igaro genituan ia bi illabete.

Reketeak San Markos'en sartu ziranean, orduan aldegin zuten gorriak edo zuriak Bilbao aldera, emen etxeak utzita askok. Urrena itzuli ziranean kontuak. Etxeak ondatuak askok. Berriro asi bear berri-berri bizimoduan, eta orra gerrako kontu tristeak.

Bilbao artu arte, atake gogorak anaiak anaiari tiraka. Ala iraun zuan bi urte ta geiagoan, kintak eraman da eraman. Eta iritxi zan gure txanda ere, ta orduan ziran kontuak gure etxeetan.

Solteroak eraman egin zituzten aurrera. Gu, ezkonduak, emen Loiola'n gelditu giñan. Baiña ura gauza tristea zan gogotik familirako.

Guk iru aur genituan ordurako. Zarrenak bost urte edo sei zituan, eta amagiarreba oian gaixorik. Aitagarreba oraindik bastante bizkorra, baiña urte askokoa ura ere.

Morroia artu genduan, mutil gazte bat, ezer egingo bazan, aitonari laguntzeko.

Ni etxera etortzen nintzan gabea, guardirik etzanean. Baiña guardia maiz egin bear, kuartelean jende gutxi zegoan-da.

Neri egunero galdezka aritzen zitzaidan amagiarreba:

- Noiz bukatuko da gerra?

Nik esaten nion:

- Oraintxe laister.

Ainbeste maite ninduan ni gaixoak; eta bera, gerra bukatu zan egunean il zan.

Ura il zan ta aurrak txikiak. Bazan zer egiñik asko gure pamilian.

Morroia eduki genduan. Baiña ura ere zerbait eman gabe ezin eduki, ta naiko komeriak, diruarekin ere justu samar ibiltzen giñan-ta. Ezin askorik ordaindu guk eta etxera joan zan.

Segi aurrera, al zan moduan. Gure umeak lujo aundi gabe aziak dira.

GERRA ONDOREN

Gerra ondoren oso gaizki ibilli giñan jatekoarekin ere, batez ere ogiarekin beintzat. Ogi gutxi ta txarra ibilli zan bolara batean. Taloak egin bear, familia aseko bazan. Gure bi seme zarrenak, berak erre taloak, eta taloa ta esnea janda joaten ziran eskolara.

Jantzi ere, al zan bezela. Eta oiñetakoak, automobilaren erruberakin egiñak ibiltzen zituzten. Ez oso txukunak, baiña fuerteak izaten ziran oso.

Gaur bezela ez ziran jazten orduko umeak. Erropa zarrak konpondu egin bear al zan moduan; eta neroni ere aritzen nintzan, emakumeak oiera joan da gero, erropak konpontzen, zulorik aundienak ixten edo tapatzen. Ez zan garai artan gaur bezelako erropa aukerik gure etxean. Ez besteetan ere noski.

Baziran, orduan ere, modu geiago zutenak eta dotoreago jazten ziranak, dirua iristen zan moduan, nik uste.

Guk familia errez azi genduala neri iruditzen zait. Aitagarrebak asko lagundu zigun. Gure seme zarrena soldadu zegoan garaian il zan, larogei ta lau urterekin. Ordurako pamila azi samarra genduan, ta bagenduan laguntza etxean, lana egiteko.

Gure semeak gazterik ikasi zuten kanpoko lanetan. Amabost urtetarako, berak sega pikatu ta belarra ebakitzen zuten, aitik bezin ondo, esateko. Ez zuten agindu bearrik. Ain ziran langilleak len, eta orain ere berdin.

Pamilia azitzen zijoan bezela, baita ere ni joaten nintzan auzokoai lagutitzera. Askotan, bei pare ona edukitzen genduan geienean, ta batera-bestera ibiltzen giñan bastante aldiz,. Baiña ez jornalean, duan baizik.

Emen, auzoan, bagenduan senar-emazte beartsu batzuk, eta gure parienteak ziran gaiñera. Ez zuten pamilirik eta gizona gaixotu ta enbalido jarri zitzaion, eta guk asko lagundu genion matrimonio ari. Ez nago damutan. Aiek il ziran ta basarria desegin zan.

Baita ere joaten nintzan auzoko beste pamili bati laguntzera. Landarbaso'raiño iñistorra ebakitzera ta baita ere ekartzera, ganaduakin. Amar urtean segituan ari laguntzen. Bailia aiek ez ziran aztutzen nitzaz. Laguntzen zidaten gero belarra ebakitzen eta abar.

Aiek anai-arrebak ziran, solteroak, baiña dirua zutenak. Ta etxea ere beiena, ta basarria saldu ta kalera joan ziran. Urte batzuk pasa zituzten onak. Baiña ez ziran oso zartuta il. Zeruan egon ditezela danak gure zai. Ala bedi.

Aiek bazituzten tolareak eta an egiten genituan guk ere sagardoak. Garai artan baziran sagarra txikitzeko makinak, baiña arek ez zuan erosi. PISOIAKIN aritzen giñan sagarra jotzen. Ordu asko pasatzen genituan lan artan. Baiña arek, makina baiño ohea zala esaten zuan.

Sagardoa ere saltzen edukitzen zuan. Bai sagardo ederrak. Upela dana saltzen zuan, enbotellatzeko, etxetik kanpora norabait ere. Orduan bazan aukera inguru auetan sagardoz eta sagarrez.

Guk ere sagar asko genduan garai artan, eta saldu egiten genduan. Gogoratzen naiz, urte batean, gerra aurretik, Loiola'ra nola eraman genituan, kargako ogei peztan, tolarera.

Garai artan diru gutxik asko balio zuan. Baiña ezin egin pilla aundirik, lan artan arituta ere.

Gauza aprobetxatu egiten zala, ta segi aurrera geroko pozean.

Garai artan gauzak merkeak ziran oso. Esnea, bi erreal litroko. Aragia, txekor-aragi onena, larogei erreal erraldeko. Orduan errealekin ibiltzen giñan. Erraldeak bost kilo ditu, eta bost kilo aragi ogei pezta. Ezin diru asko artu.

Ondo gogoan det, ni onera etorri ta laster, txekor dezentea eraman mataderira ta errenta pagatzeko dirurik iritxi gabe gelditu nintzala urte batean; garai artan zortzireun pezta zeukan etxeak errenta, ta nik txekorrarekin zazpireun inguru artu nituala. Ta beste ogei duro osatu egin bear. Etxean baldin bazan, konforme. Izatea ditxa.

Beste urte batean gertatu zitzaidan beste kaso au ere. Beia geneukan mataderira eramateko saldua, errenta pagatzeko, kentzeko esanda. Arakiña gaixorik jarri ta beirik ez zuten eraman mataderira, eta or gelditu nintzan dirurik gabe errenta pagatzeko.

Bazegoan gure etxean apopillo mutil jator bat, ta esan nion zer pasatzen zitzaidan eta aber dirurik bazuan, neri emateko moduan, errenta pagatzeko. Ta bai geiago ere; bear banuan, ernango zidala. Ta ala enian zidan bear nuana.

Jakiña, arek gure etxeko berri ondo zekian; eta, beia kendu genduanean, bueltatu eman zidan diruaren ordaiña eta aurrera.

SEME-ALABAK

Gero, semeak azi ziranean, zarrena diru piska bat irabazten asi zan batean da bestean blokeak egiten, eta baita ere igeltsero, piontzan ta abar. Guretzat alibio piska bat bagenduan orduan. Baiña kobratzen ez zan ondo ibilli. Ez dakit danak kobratu zituan edo ez.

Gero, soldaduska-denbora iritxi zitzaion, da Loiola'n serbitzea tokatu, etxetik bertan. Naiko suertea izan genduan arekin danok. Ez zuan diru askorik gastatu. Etxera etortzen zan, libre zanean, kuarletek, eta lana egin. Eta guk ura bear: alkarri lagundu.

Seme bigarrena aroztegian ikasten zebillen, ta jornal piskarekin ibilli bear, opizioa ikasi artean.

Naiko nekez asia zan gaiñera. Baiña ondo ikasi zuan soldadu joaterako, ta soldaduskara Aprika'ra joan bearra tokatu.

Tetuan alde ortan pasa zuan soldaduska, ta operatu bearra tokatu zitzaion. Baiña gu ez giñan enteratu berak esanda, beste baten bidez baizik. Ondo egin zuan. Jakinda ere, ez geneukan ezer egiterik guk emendik. Eta ala pasa zan gure orduko sustoa ta oso ondo etorri zan bere osasunez, Jaunari eskerrak.

Baiña izan zan etxean, soldaduska-denboran, illabeteko permisuarekin, eta lanean pasa zuan illabete ura, sos batzuk irabaziaz, berriz ara joateko. Ez zitzaizkan gaizki etorriko. Etxetik ez zuan noski askorik esperoko, lenago ere geiegi gabe ibillia izango zan noski ta.

Orain bertso batzuk gogoratzen zaizkit eta emen idatziko ditut. Aspaldiko bertsoak dira oek, 1880'garren urtean-edo soldadu zegoanean batek jarriak. Nik ez dakit zein izango zan. Nik ikasi nituala ere, badira irurogei urte baiño geiago. Oso politak dira eta, esan bezela, emen jarriko ditut pare bat-edo beintzat, diru-kontuarenak:

Iñondik errentarik
ez da guretzako,
emendik paga gutxi
sokorritutzeko.

Etxera abisatzen det
piskat bialtzeko,
an ere borondate
gutxi neretzako.

Diruaren eskea
nik abisatuta,
ama asarratzen da,
aita zapuztuta.
Ala esaten dute
biak juntatuta:
«Lenago asko utzi
al zun sobratuta?»

Konsuelo edo pozik
ez daukagu emen,
Maria Santisima,
kupi zaitez arren:
paraje ontatik libra
gaitzazu lenbailen,
ala gerta dedilla,
biba Jesus, amen.

Bigarren semea zan Afrika'n soldaduska egin zuana. Eta, etorri ta bereala, lengo tallarrean segitu zuan lanean.

Etxean ondo etortzen da arotza izatea, etxeko gauzak konpondu edo berritzeko. Bazan gure etxean zerbaiten bearra ere. Lengoak ez zeuden oso onak eta berriak egin bear nolabait ere piskanaka beintzat.

Seme zarrena etxe aldetik ibiltzen zan. Batzutan kanpoan ere bai piontzan, eta besteetan etxeko lanetan. Noranai joan da ere, estimatua izaten zan, eta gurasoentzat pozgarri da ori oso. Neretzako ala izan zan beintzat. Geroxeago, Donosti'ko Gasean asi zan lanean.

Ordurako bazuan andregaiia; ta guk, gurasoak, uste izaten genduan, maiorazkoa nola zan, gure etxera ekarriko zuala. Baiña kukuak aldrebess jo zigun. Andregaiaren amak allegatu zigun bere alaba etxerako zeukala, eta ala gertatu zan aien ezkontza.

Gu, gurasook, naiko penarekin gelditu giñan. Baiña ikusten genduan guk ere, alde artatik bazegoala bizi-postura geixeago, gure aldetik baiño, gure etxean palta aundia utzi arren.

Pamili on batera joan baitzan, eta bereala egin ziran pisu balen jabe. Eta gu emen beti etxe zarrean, eta besterena gaiñera, maizter. Baiña toki politean dago; puntu onean.

Basarriko gauzik garrantzizkoena esnea da, ta etxetik eramaten dizkigute danak, iñora mogitu gabe.

Orrek asko balio digu gaurko egunean. Gu ez gaude pamilirik, kalera joan da etorri ibiltzeko. Seme ta alabarekin, irurok bakarrik bizi gera. Alaba lanera joaten da gaiñera, eta aita-semeak bakarrik etxean gelditzen gera.

Baiña alabak etxetik oso urre edo bertan dauka lantokia, kasikan eun metrora, eta oso ondo moldatzen gera.

Alaba au degu irugarren senidea. Ta orain arte josten aritua da etxean eta kanpoan, eta orain ere bai, denbora duanean. Badu zer egiñik asko. Gogoa badu beintzat. Ez dauka lanaren paltikan, ez etxean da ez kanpoan.

Irugarren semea ere aroztegian ibilli zan bastante denboran. Baiña ikusi zuanean zarrena kanpora zijoala, bere borondatez etxean gelditu zan, eta guk asko estimatu genduan. Basarriko lanak egiten laguntzeko oso ondo etorri zitzaigun gurasoai.

Soldadu joan bearra zeukan bereala, eta Loiola'ko kuartelean pasatzeko modua egin genduan, boluntario serbitzekotan, etxeakoai zerbait lagun egiñez.

Gazteena ere etxean zebillen. Etxeko lanak errez egiten genituan gaiari artan. Pamili ona lanak egiteko.

Baserrian berriz, lanaren paltik ez. Diruaren palta bai askotan. Baiña bizitzeko aiña sortzen zan, eta zorrik ez egitea gure naia; ta aurrera geroko pozean.

Seme gazteena allegatu zan soldaduskara; ta, laugarren anaia nola zan, emen bertan serbitzeko eskubidea zuan; da ala pasa zuan, Loiola'n, etxean zerbait lagun egiñez.

Oso ondo moldatu giñan gure soldadu oiekin, oso diru gutxi gastatu ta alkarri lagun egiñez, ez baitzan zer gastatu aundirik ere gure etxean.

Baiña beti zerbait bear da, eta irugarren seme orrek, len aroztegian ibillitako orrek, andregaiia egin du eta kaletarra tokatu ura ere, ala bearrez.

Ostera aroztegian asi zan obretan, sos batzuk sobratzeko bidean. Zerbait egin bear. Gure etxean ez zuan ikusten laguntza geiegirik eta zerbait egin bearrean ikusten zuan bere burua.

Ala, segitu zuan bastante denboran lanean obretan. Eta gero, esposatzea pentsatu zutenean, andregaiaren etxera egingo zirala eta ala moldatu ziran.

Nolabait ere, aiek Errenteria'n bizi ziran da pisu aundia zeukaten berena. Ta pentsatu zuten ura saldu ta Lezo'n bi txikiagoak erostea. Ala egin zuten eta orain Lezo'n bizi dira pisu banatan, alkarri lagunduaz.

Baiña ez dabil aroztegian, Luzuriaga'ren fabrikan baizik, San Juan'en, erreleboan; da basarrira etortzen da eguraldi onean eta asko laguntzen digu guri, etxeko lan danak egiten. Badegu orren bearra gure etxean.

Gure bigarren semea, Joxe, Loiola'n bizi da ogei urte pasean, eta ezagutzen dute Loiola'ko jende geienak, euskaldunak beintzat.

Ezkonduta andik lau urtera-edo, gertatu zitzaion onoko ezbear aundi au. Egia esateko, mirari biurtu zana, nere ustez beintzat. Ala egoten naiz pentsatzen.

Onela gertatu zan, 1967'an, Santa Krutz egun batez, ain zuzen ere:

Bere emaztea bigarren aurra izateko zeukan, ta ez zala ondo aurkitzen-ta, goiz artan bera lanera joan gabe geldituta, etxerako bear, ziran gauzak ekartzera jetxi.

Bear zituan gauzak artu ta beren etxera seigarren pisuraino iritxi zanean, aszensoreko kablea eten da beeraino erori ziran.

Bi lagun ziran. Joxe porrokatua gelditu zan. Bestea soldadu zegoan mutilla zan. Arek min gutxi artu zuan. Baiña gureak belaun bat txikitua ta bizkarrean ere kolpe aundiak zituan.

Asko kosta zitzaion lanerako moduan jartzea. Baiña jarri zan bastante ondo, ta segitu zuan urte batzuetan lanean aroztegian. Baiña bizkarretik asi zan kejatzen, da lanari utzi egin bear izan zion, aroztegiko lanari.

Orain beste lan batzutan ibiltzen da: euskerazko klaseak ematen da abar, eta al dan moduan bizimodua ateratzen dute, emaztea josten da abar.

Bera gaixo zegoala jaio zan bigarren aur ori, ta alaba ain zuzen, len semea zuten-da. Eta Mirari jarri zioten izena ere alabatxoari. Nik uste det naiko miraria izan genduala danok ere, gizon ura ainbestean gelditu zalako, ainbesteko danbetakoa artu ondoren .

Ez dago pentsatu besterik, seigarren pisutik bea jo zutenean, zer kolpe izango zan ura. Ikaragarria nai ta nai ez. Begiratu, bestela, zer altura dan sei pisuko altura.

Nik beintzat miraritzat artu nuan gertakizun ura; eta orain Mirarik, nere illobak, laguntzen dit nik idatziak makiñan pasatzen, ta bere aitak ere idatzitako okerrak zuzentzen. Ea danon artean zerbait egiten degun, bata besteari lagun egiñez, danen pozgarri ta onerako izan dedin. Ni uste ortan ari naiz beintzat.

Gure seme ori, gaixo zegoala, asi zan bertsoak jartzen da idazten. Lenbiziko, bere ezbearra gai artuta jarri zituan. Ta, ikusi zuenean bazeukala artarako maiña, aurrera egiteko gogoia ugaritu egin zitzaion nunbait, eta bertso asko ta oso txukun moldatu ta jartzen ditu, ta premio askotxo irabazi ere bai. Ta segi dezala bide ortatik urte askoan. Nik ola opa diot biotzetik.

San Inaziotan, barrioko festak diranean, bera ibiltzen da aiek organizatzen eta gaiak jartzen ta abar. Baita ere, apaiz jaunak bakaziotan diran garaiean, elizan ango utsunean lagun egiten; ta neretzat pozgarri dira gauza oiek.

Besteak beste, baserriko lan danak egiten oso ondo moldatzen gera, danok alkarri lagunduaz, basarri zarrean, orain arte beintzat.

ALARGUN

Pamili txikia giñan. Alaba josten kanpoan. Aita ta ama, seme gazteenarekin. Barazkia ere ezin egin bear aiña iñola ere, eta ama aspertua zegoala Donosti-bidean egunero eta astean bi aldiz asi zan.

Gero pentsatu genduan, ganadu geixego jarri ta plazara joateari uztea. Utzita ere, biziko ote giñan.

Ala segitu genduan iru edo lau urtean, eta gure ama oso pozik bizitu zan urte aietan. Ala esaten zuan berak ere:

- Ni oraintxe bizi naiz, nere denboran bizitu naizen ondoena.

Egunero, edo astean bi aldiz ere, aspertua ikusten zan, nekatua zegoala eta etxeari gusto artzen ziola. Bere etxeko lanak egiñez, patxara obean bizi zala.

Alaba, josten Loiola'n ibiltzen zan, eta etxean bear ziran gauzak arek ekartzen zituan; eta, esan bezela, amak etxeko lanak egiñez, oso kontentu bizi giñan.

Baiña ala bear da ama gaixorik jarri zitzaigun, eta bizipoza goibeldu zan ederki gure pamilian.

Sendagilleak esan ziguten gaixotasun luzea izan zitekela, baiña sendatu eziñezkoa zala, eta ala gertatu zitzaigun.

Residentzian ere egon zan illabete pasean, baiña ez zuan ezertxo meioratu, eta etxera bialdu zuten eta etxean egon zan bost illabetean, oietik atera gabe.

Beti esaten zigun ez zuala miñik iñun sentitzen. Baiña supritu asko egin zuan, nere ustez. Besteai naigaberik ez emateagatik esaten zigun guri ez zeukala iñungo miñikan.

Ala geundela, iritxi giñan berrogei ta amar urtera gure ezkontza izan zanetik ordura arte; eta pentsatu genduan urrezko eztaiak egitea.

Animakoak, bion artean. Apaiz jaun bat ekarri eta aitortu biok, eta geuren bizitza guzian egindako utsegiteak alkarri barkatu apaizaren aurrean. Biok

Jauna artu eta trankil gelditu giñan ura egiñarekin, eta ala esan zigun:

- Au deskantsua artu det!

Andik illabetera iritxi zitzaion azken ordua, ta zeruan gerta dedilla, guretzat erregutzen. Ala izan dedilla.

Orduan, urrezko eztaietako denborara iritxi giñanean, gauza ura gai artuta-edo, pentsatu nuan bertso batzuek jartzea nere buruz, eta jarri ere bai batzuek nola edo ala; eta ernen jarriko ditut onen ondoren, eta onela dira gure bizitzako gertakizun batzuk:

Bertsuak jarritzeko
baneukake gaia,
ez egonagatikan
nai bezin alai.
Berroi ta amar urte
ezkondurik baia,
alkar maitatzen beti
egin gera saia.

Altza'ko parrokian
zan gure ezkontza,
biok bat izateko
eman gendun itza,
zuzenki eramanez

munduko bizitza;
gaur eguneko asko
bestela dabilta.

Matrimonioa da
munduko oiñarri,
Jainkoak ortarako
egin zuan jarri.
Komeni bada, seme-
-alabak ekarri,
danak bizi ditezen
lagunduz alkarri.

Berroi ta amar urtean
zenbat gorabera,
besteak bezelaxe
ikusiak gera.
Basarri zar batean
gure bizikera,
etorri gutxi eta
lanetik aukera.

Gurutzia artu gendun
bik eramateko,
geuren bizi guzian
alkar serbitzeko.
Jainko-laguntza biar
ori iristeko,
eta otoitz egin biar
gauz ori lortzeko.

Lau seme ta alaba
dauzkagu munduan,
eta bi aingerutxo
baitare zeruan.
Alkarri lagunduaz
biar dan moduan,
gurasoentzat zer da
oberik niunduan?

Gurutze ori degu
denontzat astuna,
biak bete biarra
bere eginkizuna.
Eta sendua biar
beren maitasuna,
bestela alperrikan
baita ondasuna.

Ainbeste urtetan jardun gerade
jai eta aste lanian,
barkaziorik etzan guretzat
gauza izan geranian.
Andre gaixua oiean daukat
eziña etorri danian,
ona or gure ustiak zer ta
nola diran azkenian.

Ura izkutatu zan gure mundu ontatik, eta guk aurrera egin bear al dan moduan. Pamilia txikia gelditu giñan, iru laguntxo bakarrik, eta alabari lana jarri zioten etxetik oso bertan. Ordu onetan jarri zan, goizean amarretan joan da arratsaldeko seirak bitarte, eta an segitzen du orain arte beintzat.

Emaztea il ondoren, buruan sortu zitzaidan nere bizitzako pasadizo batzuk idatzita utzi bear nituala, eta asi nintzan idazten. Gero eta gogo geiago sortu zaidala iruditzen zait, eta ala segitu nai nuke, oraindik badet-eta zer idatzia nere zartzaroz.

Zartuta ikusten det nere burua. Baiña burua oso ondo daukatela iruditzen zait, eta Jainkoa ere nere alde detala uste det. Uste ortan nabil. Eta etxeakoak eta kanpokoak ere berdin, danak laguntzeko prest daude. Len egin detan pixka ala egin det beintzat.

Oraintxe laixter dira sei urte emaztea il zala. Utsune aundia utzi zuan gure etxean, baiña konformatu egin bear. Etzegoan beste biderik. Nik beintzat badaukat itxaropena betikotasunean bilduko gerala beste munduan. Ala gerta dedilla.

Emaztea il eta andik iru urte ingurura, operatzea tokatu zitzaidan. Sendagille jaunak, Astigarraga'ko Don Julian Arzamendi'k, esan zidan operazio samurra zala eta obe nuala operatzea; etzegoala beste erremediorik arentzako, eta bereala konformatu nintzan.

Poliklinikara eraman ninduten, eta oso ondo gelditu eta oso ondo jarri nintzan operazio artatik. Doktor Esnal'ek operatu ninduan, eta oso ondo atenditu ninduten bai sendagilleak eta bai gaxo-zaintzailleak ere.

Ura izan zan nik basarritik kanpora egin detan txangoa edo ibillaldia edo parranda bakarra. Gaiñerakoan ez nuan egin etxetik kanpora gau oso bat etxera itzuli gabe iñoiz, basarri ontara etorri ezkerro. Soldadu egon nintzanean bakarrik, guardia tokatzen zitzaidanean, derrigorrezkoa zalako gerra-denboran.

GURE GURASOAI

Gure gurasoai bertsoen batzuek jartzea ere pentsatu nuan beste batean. Bai jarri ere nola edo ala; eta onoko auek dira:

Bertsoak jarritzeko
nengoan lendikan,
Jainkoak lagundutzen
badit zerutikan.
Ikasi genduen
gurasogandikan,
ez dezagula aztu
dana oraindikan.

Aien sinismen ura
bai zala sendua,
Jainkoa serbitzea
lengo agindua;
artarako etorriak
giñala mundua,
lagun urkoa maite
gu geuren modua.

Biderik zuzenean
len orain da gero:
otoitz egiñaz ekin
lanari egunero.
Jainkoak laguntzen du
ori egin ezkeru,
bestela gauz onikan
etzazu espero.

Otoitz eiten ez duna
beti dago argal,
orrek ondoren onik
iñontzat ez dakar:
pazientziak aitu ta
berealak zakar,
umorea nekez ta
asarrea azkar.

Aien bizi modua
nik daukat santutzat,
gaurkoa ikusita
nei ala deritzat.
Gorrotorik etzuten
aiek iñorentzat,
ta maitasun geiago
orain baiño beintzat.

Pobriak izan arren
biotzetik alai,
borondate onian
etxian da nunai,
umiltasun osuan
itzegiñaz danai;
auek goguan artu,
arreba ta anai.

Laboria egin biar
urte guzirako,
etxeko familiak
ondo asetzeko.
Laia, atxur ta arre
lurrak goza tzeko,
aurrerapenik ez zan
ordun ezertako.

Lur zekenak gozaten
egin zuten lana,
beren indar utsakin
egin bear dana.
Ala bizitu ziran
gure aita ta ama,
Jaunak emango zien
betiko atsedena.

Lenbizi Jainkoa ta
gero beste lanak,
ez ziraden, ez, gutxi
eginda joanak.
Gero sortu ziraden
launtzeko makiñak,
nekeak arintzeko
gizonak egiñak.

Jainkoaren laguntza
zuten segurua,
artan nekatzen zuten
aik beren burua.
Geroko zoriona
zuten esperua,
orain goza bezate
betiko zerua.

LEPOTIK ESTUTU ARREN, EZ ITOTZEN

1934'garren urtea zan. Gure etxeko edo gu bizi geran etxe ontako tellatua konpontzen aritu ziran arotzak, Lakatxatarrak. Iru anai ziran. Garai artan, aiek ziran emengo basarrietan geien ibiltzen ziranak. Gaur ez da aietakorik emen ikusten. Mundu ontatik izkutatu ziran. Zeruan izan ditezela. Ala bedi.

Tellatua konpondu zuten, eta tellatua nagusiak pagatzekotan zan. Baiña etxeko sarrerako atea oso zarrak eta puskatuak zeudela esan zigun arotzak, anai zarrenak, Bixentek. Ala zuan izena.

Ta ala, egin genduan tratua. Bazekian, ikusi zituan, aritz arbola ederrak bazeudela, ta aietako iru

aukeratu zituan beretzat, aiek eramateko zerratzeraz Ernani'ra, ra aien truka egingo zituala ate berriak.

Piñu-olakin egin zituan. Ez zan gaizki aterako Bixente aritz-arbola aiekin. Ni baiño obeto noski.

Ilbeltzaren laua zan egur oiek eramatea tokatu zan eguna. Gogoan izateko moduko eguna, ta gaua ere bai.

Karroa ere fuertea bear zan aiek eramateko. Gure etxean ez zegoan apeajorik puska aiek eramateko modukorik, baiña billatu zuan Bixentek.

Lazunene'n sagardoak egiten ziran garai artan, eta Donosti'ra sagardoak eramaten ibiltzen ziran. Aldiko iru bukoi sagardo eramaten zituzten karroan. Oso fuertea zeukaten. Ura ekarri ta antxe eramatea erabaki genduan.

Kargatu degu al dan bezela, ez errezegi, egur aundiak baitziran. Bei onak zeuden, baiña karga aundiegiak beientzat ere. Artu zuten pasada ederra gure bei oiek, Ernani'ra iristerako.

Gero, aiek zerratuta, berriz Martutene aldera ekarri genituan. Bide-kurutz batean utzi genituan.

An etxe berria egiten ari ziran, eta etxe artarako zituan puska aiek Bixentek.

Zerratu-alean, berriz karroa largatu ta Martutene aldera. Bide-puska batean etorrira, an utzi materialak.

Baiña ni bakarrik utzi ninduan Bixentek. Bera ez dakit nora joan zan. Ura ez zuan ondo egin, nere ustez. Nik ez bainuan bide ura batere ezagutzen. Ez nintzan bein ere pasa bide artan, eta gau illuna. Ordurako baziran zortziak edo geiago, negu-garaia nola zan, Ilbeltzean, aurreneko egunetan. Lan geiegi baitzan, arratsalde batean egiteko, lan ura guzia.

Banator parola txiki bat eskuan, da bizi-bizi ta leial etxe aldera ganaduak, karro utxarekin ta azkar-azkar.

Kamiñoa eta trenbidea alkarren ondoan dira. Iru edo lau metroko tartea, gutxi gorabera.

Antxume baserriko parean nintzala-edo, an erreka pasatzen erriora. Kamiñoa ta trenbide azpitik tunel koskor bat da. Orain ere an egongo da ura. Eta kamiñoa ta trenbide bien tartean zulo aundi bat zegoan, ta illun. Nik ango berri batere ez nekian, da nere bei-parea zulo artan eiori ziran, karroa goian geldituta.

Tunel artan gelditu ziran uretan, bat alde batera, bestea beste aldera jirata, beren uztarrian, ezer puskatu gabe. Nik ez nuan espero bei aiek geiago ondo ikusterik trantze artan.

Ni ojuka asi nintzan laguntza-esk Juntatu ziran beste bi lagun. Lenbiziko, Joxe Anjel Arratole'koa,

difuntua. Goian bego. Arek lagundu zidan asko. Urrena etorri zitzaiguna, Barkaiztegi'ko Joxe Irizar, mutil gazte bikaiña. Amazazpi edo emezortzi urte izango zituan.

Orain dala denbora piska bat egon nintzan berarekin, eta berritu genduan orduko gure gertakizuna. Eta ala esan zidan: zerbait gogoan daukala, baiña gutxi gogoratzen dala.

Joxe Anjelek eta Joxe Irizar'ek lagundu zidaten beiak askatu ta kamio azpitik pasa ta legorrera atera ta berriz uztarrarian lotzen, ta abar.

Beiak oso planta txarrekoak gelditu zirala ikusirik, onela esan zidan mutil gazte orrek, Joxe Irizar'ek:

- Nik ekarriko ditut idiak, karroa eramateko bear dan tokira.

Baita ekarri ere idiak berealaxe, etxera joanda. Ta arek lagundu zidan gure etxeraiño. Ura bai portatu zala nerekin oso ondo eta jator. Bixente baiño obeto, nere ustez.

Etxera iritxi giñan. Berandu zan ordurako. Gutxienez, bai amarrak edo geiago noski. Gure etxeakoak apuratuta zeuden, zer pasatzen ote zitzaidan, arrazoiarekin.

Nik negar egiten nuan ume batek bezela, eta Joxek kontatu zioten zer gertatu zitzaidan gure etxeokoi .

Ni geioztik asko gogoratzen naiz bi gizon aietzaz: Joxe Anjel, zeruan izan dedilla, eta Joxe Irizar'ek urte askoan osasuna ta pakea izan dezala. Ala bedi.

Urrengo egunean, bei bat motel ikusten zan zegoala, ta albaiteroa edo beterinarioa ekarri genduan.

Otzak pasea zegoala esan zigun. Baiñu beroa emateko eta manta jartzeko. Egin genduan eta beia bereala sendatu zan.

Orduko beterinarioa Don Markos Artola zan. Beti oiñez ibiltzen zan, etxez etxe, basarririk basarri; eta arek bazekian zulo aundi ura nola zegoan oso gaizki, eta esan zidan:

- Nik adieraziko diot kontzejal bati, zulo ura ixteko modua egin dezatela.

Andik laster itxi zuten zulo ura. Beterinario jaunak berak aitortu zuan naiko milagroa zala, zulo artan erori ta beiak ondo ateratzea. Eta beste geiagok ere bai, ura entzun zutenak.

Gaur ia gutxi biziko gera, orduan sasoiko giñanak. Nik neronek ere milagrotzat artu nuan gertakizun ura: neu nola ez nintzen erori beiakin batean gau illun artan. Ura zan milagrorik aundiena, nere ustetan.

Esaera zarrak onela dio: «Jainkoak, lepotik estutu arren, ez duela itotzen». Neri ala gertatuko zitzaidan noski.

NERE PARRANDATXOAK

Nik egin deten aundiena, basarri batera barrikotera joanda, Torrua basarrian.

An egiten genituan sagardoak garai aietan, da sagardoak egin ondoren barrikotea egiteko oitura zan, eta an bildu giñan sei edo zazpi lagun ingurukoak.

Bapo apaldu ondoren, an bazan umorea ta bertsoa ta zer esana ugari, eta gaua berealaxe pasa ta goiza etorri.

Nik uste det, sagardoaz leporaiño bete ta gero, kafeak eta patarrak ondatu giñula. Ni bai beintzat. Azkenerako zoratu arrunt. Onoko bertso auek orren ondoren ondo etorriko dirala derizkiot:

Indarra erariak du
ezin leitekena neurtu,
gizona lezake aurtu.
Ustez tamañan bein eran eta
ninduen oso mozkortu,
itzegin ezin da gortu,
bista zitaidan laburtu,
tratu on bat nuen artu.

Batek lezake espero
ondotxo eran ezkeru
jarriko duela ero;
lotsagarri ta lotsikan gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
nunai egiñaz aldero,
modu txarrian biziro.

Mudatzen gaitu eranak
mundu onetan geranak,
pruebak daude emanak;
jenio txarrak ondutzen ditu,
baita txartu ere onak;
aztu orduko esanak
eta egindako lanak,
naiz gero damutu danak.

Gustora eran banuen,
ondoren pagatu nuen,
deskalabratu ninduen.
Nere ondotik pasa zan batek
galdetu zidan zer nuen:
ia minen bat al nuen,
nundikan sentitzen nuen,
planta onen bat jo nuen.

Nai ez duenak orditu
eta ondoren eritu,
kontuz eraten aritu.
Erari-klase gutiak bere
espirituak baditu;
gure txintxurrak nai ditu,
gustora eraten baiditu,
naiz gero berak zatitu.

Urrengo goizean, esnatu da nere emazte difunta ta
ni falta. Apuraturik, oju egin dio aitari:

- Bartolo ez da etorri etxera.

Ta an joan zan nere billa, goizeko seirak inguruan,
Torrúa basarrira; eta gu an oraindik kantari. Ango
nagusi zan Antonio, mutilzarra, ta biok, bertsoak
kantatu ta patarra edan; ura ere, ni bezela, erdi
bertsolaria baitzan.

Urte asko dira ura il zala, baiña ez naiz aztutzen. Oso alkar maiteak giñan, eta ea berriz juntatzen geran zeruan alkarrekin kantari. Ala bedi.

Arek ere bertso zar asko zekian, baiña nik orduan arek baiño geiago nekian, da ala esaten aritzen giñan: apustu egin bear genduala biok, zeïnek geiago kantatu bertso zarrak, sagardo-puska bat edan ondoren, umorean jartzen giñanean; an guk, sagarra jotzen pisoiakin, ordu asko pasatzen genituan, eta apaldu ta ondo jartzen giñanean.

Aparia oillasko ta guzi jartzen zigun. Orduan ez zuan edozeïnek jaten oillaskoa. Baiña Antonioren arrebak, Mariak, guri askotan jartzen zigun. Modua ere bazuten eta borondatea ere bai guretzako.

Ni andik goizaldera askotan etxera etortzen nintzan. Baiña urrengo eguna oso txarra pasa bear izaten nuan. Ez nuan balio nik parrandan ibiltzeko, batzuek bezela.

Artzai Txikia bertsolariak andreari kantatutako bertsoa gogoratzen zait:

Amaika ta erdietan
oraindikan goiz-ta,
berez okerra dana
zuzendutzen gaitz-ta.
Atia iriki zazu,
nere andre maixtra,
kabaileruen moduan
ibillia naiz-ta,
urrenguan goizago
etorriko naiz-ta.

Artzai Txikiak bertsolari onenetakoa izan bear zuan. Nik ez nuan ezagutu. Aditzera badet aspalditik, oso bertsolari dotorea zala. Baiña edanarekin deskuidatzen. Neurrik ezin artu.

Egun batean, ez dakit nora eta noiz izango zan, baiña bere gisa etxera etortzeko gauza ez ta kotxeren batean ekarri bere etxera. Au aspaldiko kontua izango da noski, ta garai artan ez zan izango gaur bezelako kotxe-aukerik, baiña bateonbatzuk ibilliko ziran orduan ere.

Artzai Txikiak bertsoan jartzen duanez, orduan, kotxean ibiltzen ziranai, kaballeroak deitzen nunbait. Ura etxera ekarri zutenak ere ala izango ziran. Eta, allegatu ziranean, esan omen zioten bertso bat kantatzeko andreari. Baita kantatu ere.

Oso justu ez bada ere, nik orrela daukat gogoan: or goian jarri dedan bezela.

Beste parranda, aundi samarra, Altza'n, Martillun tabernan, egin genduan.

Ganaduen Kofradia euki genduan urte askoan Altza'ko basarritarrak. Geienak an giñan garai batean, ta kuadrilla aundia giñan. Illean bein biltzen giñan, dirua botatzeko kajara. Illero, buruko edo bei bakoitzeko duroa edo olako zerbait botatzen genduan, beiren bat galtzen zanean andik pagatzeko, kolpean asko bota gabe, errexago pagatzeagatik .

An nintzari Kofradian pagatzen, da udara zan. Illunabarrean zazprietatik zortietara biltzen giñan udara-garaian, eta negu-garaian arratsaldeko lauetatik bostera, illean bein. Lista pasatzen zuan listeroak, eta ukulluko lanak eginda joaten giñan udara-garaian, an patxara obean egoteagatik.

Bein pentsatu genduan apari-mokadu bat egitea kuadrillan. Zortzi edo amar lagun izango giñan. Gaur oso gutxi izango gera bizi geranak: ni ta Patxi Otxoki. Gaiñerakoak izkutatu ziran mundu ontatik. Zeruan gerta ditezela.

Atera gera Martillun'dik, berdindu samarrak noski; eta gero Lau-aizeta'n pasa bear, gu etxera etortzeko. Baiña an sartu gabe ezin etorri, eta an kafetxo bana artu egin bear ta sartu gera. Orduan taberna jarri berri samarra zan.

Kafea artu ta beste kopa pare bana, ta gero zerbeza, danak bero-bero egiñak, asi gera bertsotan iru lagun: Joakin Kataline'koa -ura difuntu dago, goian bego gure zai-, Patxi Otxoki ta ni.

Danok umore onean eta pakean beintzat. Naiz balantza batzuk egin, bakoitzak geuren zamarekin etxera joateko moduan beintzat.

Bost atera giñan alkarrekin: iru, bertsotan aritu giñanak; Domingo Garbera'koa ta Pedro Isabel-etxe'koa. Orain bi bizi gera: ni ta Patxiku. Pedro ta Domingo aspalditxo illak dira; eta Joakin, orain urte ta erdi edo ola izango dira il zala.

Gu, Patxi ta biok, Ametzagaiñean goizeko laurak aldean, ezin apartaturik, biok bertsoak kantatzen. Orduantxe bota genituan ederrenak. Zeiñek apuntatua palta.

Urrengo egunean kontuak. Desemulatu egin nai, baiña ezin. Ala esan zidan andreak, ura pasa ta andik bi egunera: illa ematen nuala, nik parranda egindako urrengo egunean.

Ortik pentsa zer planta eramango nuan. Ala esaten zidan eniazte difuntak:

- Badakizu ez dezula balio parranda egiteko. Ikusten dezu zer tratu txarra artzen dezun. Baiña alperrik da esatea zuei. Zoratu egiten zerate edan zikin oiekin.

Arrazoi zuan gajoak. Beste geiagori ere gertatzen zaie noski. Sobra geiegiri noski.

Gaiñerakoan ez det nik parranda aundirik egin izan, Ez Goierrin, ez emen. Etxean txintxo, ta ala obe neretzat, ta besteentzat ere bai noski. Baiña geienak deskuidatu egiten emen, asko edo gutxi.

UBA'KO AMA BIRJINA

Ni barrio ontara etortzeko, Uba'ko Ama Birjiña bitarteko izan nuala beti dabilkit nere buruan, eta asko maite det Uba'ko Amatxo nik, emen bizi naizen denbora guzian, eta ez nago aztuta uzteko aurrera ere.

Orain dala berrogei ta amar urte inguru asi ta ia berrogei bat urte inguru edo geiagoan, kasik egunero joan bear izaten nuan emazte difuntari laguntzera, sestera tranbera edo autobusera eramaten Txomiñene'ra; eta Uba'ko elizaren ondotik pasatu bear, nai ta nai ez.

Zenbat errosario errezatu nuan nik bide ortan, Jainkoak daki. Eta, elizako atea irikita bazegoan, ikustaldia egin, estazio bat errezatu ta etxera konporme.

Gero, eguardian, berriz emaztearen billa, zestoa ekartzen laguntzera, ta ez nintzan aztuta pasatuko, askotan agur mari bat edo bi edo iru errezatu gabe beraren izenean; eta gabean ere bai, aztu gabe.

Egunero, oiean sartu baiño len, beste iru agurmari gutxienez. Eta nere oieko buruko azpian an egongo da beti beraren irudia edo estampa ere, aztu gabe.

Ama Birjiña orrek ez du fama aundirik izan, tamalez. Ori or zortu zala bostgarren gizaldia dala entzun izan det. Gure aurrekoak ez zuten esaten zein urtetan sortu zanik. Entzun niotena au da bakarrik: ori sortutako argibideak edo paperak gerrateren batean erre egin zirala, ta ez dala argibiderik iñun arkitzen.

Baiña orain dala urte batzuk argitaratu zuten periodikoan zertxobait Ategorrieta'ko monjatxoak, eta irakurri ere bai.

Gaur nik gogoan daukatena auxe da bakarrik: ez zala orain dagoan tokian agertu, baizik mendiz beste aldetik; ta asi zirala ermita egiten. Baiña egunez egindako lanak, gabean erori egiten omen zirala. Orain dagoan tokian eginda, berriz, oso ondo gelditzen omen zirala. Ta beste gauza geiago ere bai. Baiña nik dakitena au da bakarrik: bostgarren gizaldia badala, ori sortu zala Ametzagaiña alde ortan.

Ni onera etorri nintzanean, prailleak zeuden, mertzedarioak, ta aiek mutil koskorrak ezitzen. Ori komentu bezela zan orduan. *Reformatorio* esaten zitzaion.

Orain ere ala segitzen du, baiña beste modu batera. Orain dira, ba, edukadoreak, maisu ta abar. Baiña relijioko gauza gutxi erakusten diotela uste det nik.

Lenago, egunero meza santua izaten zan. Geroxeago, igandeetan bakarrik. Eta orain batere ez. Ezkontzaren bat edo beste noizik bein, izaten bada.

Ez dago lengo konturik. Apaiz jaunak ere, bada, gutxitu zaizkigu, tamalez. Ta orra or gure kapilla polita kasik urte guzian itxia.

Urtean egun bat bada, bereziki bera onratzeko jarria dagoana. Leendik datorren oitura, eta segitzen du orain ere oitura orrek.

Garizuma pasa ta Pazko bigarrenez ospatzen da egun ori. Arratsaldean egiten da elizkizuna, ta orduan jende asko inguratzen da Donosti'tik, Loiola'tik, Martutene'tik eta Altza'tik. Baita ere Astigarraga'tik eta abar. Danok euskaldunak izango gera or biltzen geranak.

Lenago, prailleak egon ziran denboran, bere jai ori pasa ta ondoren, bederatziurrena egiten zitzaion, aurretik aste santua izaten zalako, ta jende bastante

ibiltzen zan. Jakiña, garai artan basarri asko zan inguru auetan, Ametzagain bi aldeetatik, eta orain ia batere ez.

Uba'ko Amatzok, edo ori bitarteko detala, neri iruditzen zait ezbear-aldietan Jainkoak asko laguntzen didala, eta aurrera ere ala segituko dedala, bizi naizen denbora guzian, burua sano baldin badet beintzat. Ala izan dedilla.

Nik gaixoaldi asko izan ditut, eta gaixoaldi guzietan Uba'ko Amatzok beti artu det bitarteko. Bi bider egon naiz elizakoak eginda ere. Baita ebakuntza edo operazioa eginda ere. Ta danetatik ondo atera naiz, orain arte beintzat. Oraindik emen nabil beintzat, ta bastante ondo gaiñera, Ama Birjiñari edo Jainkoari eskerrak.

Urtez naiko kargatua nago, bestela ariña banago ere. Baiña ez daukat damurik zartu naizelako. Zenbat eta zartuago, orduan da poz geiago sentitzen det nereki, ta nik derizkiot au dala munduan dan gauzik ederrenetako bat.

Bezte gauza bat: nere ustez, danai erakutsi onak ematen saiatu. Nik ala egiten det beintzat. Len ere ortan saiatu naiz nere bizitza guztian: besteai laguntzen nola edo ala. Lanean ere bai, pamilia iristen giñan moduan, ganaduakin; eta pertsonaz ere bai garai batean. Orain ordaintzen dizkigute, belarrez eta beste laguntzaz, gure lengo lan aiek, eta ez daukat penik len besteai lagundutakorik.

Beste gauz bat idatzi nai nuke. Oso garrantzi aundikoa izango degula derizkiot nik nere baitan. Ni len laguntzen ibillia banaiz alegiñean, orain ere ala segitzen dedala. Len lanez bezela, orain otoitzez laguntzen saiatzen naizela lagun urkoai, bai etxekoai ta bai kanpokoai, bai gaixorik arkitzen diran zarrai ta baita gazteai ere berdin.

Uba'ko Ama Birjiñari, orain dala berrogei ta amar urte baiño geiago, mertzedarioak egiten zioten edo, obeto esateko, egiten genion bederatziumena, nerekin daukat; eta nik gaixo-aldietan, naiz etxeko edo kanpoko ezagunen bat dala, askotan egiten diot Uba'ko Amatrixori, gaixo dagoan aren alde, urte osoan askotan edo maiz samar gaiñera, nere gelan, gaixoari on egiteko ustearekin. Ala bedi.

Orain pentsatzen det nobena ori emen idatzita uztea, iñork egitea pentsa badu ere. Erderaz jarria dago ta nik ezin euskerara biurtu, eta erderaz idatziko det eta onela dio:

«En el monte Amezagaiña, sobre el barrio de Loyola, mirando hacia San Sebastián, se venera una imagen bajo la advocación de Nuestra Señora de Uba, la Virgen del Dulce Sueño. A su fiesta, los lunes de Pascua de Resurrección, acuden cientos de madres cristianas a poner sus hijos bajo su amparo.»

Se le invoca contra los insomnios y las enfermedades nerviosas. Novena a Nuestra Señora de Uba, la Virgen del Dulce Sueño. Oración:

Virgen de Ubu, Madre nuestra, me reconozco el hijo malo que te ha ofendido muchas veces marchándose de tu lado.

Perdóname. Quiero vivir siempre en tu compañía. Hoy me encuentro enfermo. Escucha a tu corazón de madre, cerrando tus ojos a mi miseria. Atiéndeme en esta necesidad que te encomiendo. (Hágase la petición). Si quieres y conviene, puedes concederme lo que te pido. Así, reconocido a tus repetidas gracias, te prometo trabajar, con tu ayuda, en el servicio constante a tu Hijo, que con el Padre y el Espíritu Santo vive y reina por los siglos de los siglos, así sea.

Salud de los enfermos, ruega por nosotros. Ave María. (Tres veces).

Acto de consagración:

Oh señora mia! Oh madre mia! Yo me ofrezco del todo a Vos. Y en prueba de mi filial afecto, os consagro en este día (o noche) mis ojos, mis oídos, mi lengua, mi corazón, en una palabra, todo mi ser. Ya que soy vuestro, ¡oh Madre de piedad! guardadme y defendedme como cosa y posesión vuestra. Amén.

GURE AURREKOAI ENTZUNAK

Erri txiki batean gertatu zala esaten zuten. Ez dakit nun.

Baiña apaizai, garai aietan, errian errespeto aundia ziotela. Edozer pabore egiteko, aiek izaten zirala lenbiziko, ta ez zirala gaizkien gobernatuak izaten. Orduko etxeakoandreak maite izaten zituztela apaiz jaunak. Eramaten zizkioten, txerria iltzean, erregalo gozoenak, eta arrautza preskoak, edo oillaskoren bat, edo oillo zarren bat, edo beste gauza asko, ta abar ta abar.

Eta ordukoa gertaera au, edo ez dakit txistea dan. Baiña nik entzuna, Goierri'n nintzala.

Erri artan bai omen zan eiztari onen bat, eta egun batean lau eper il omen zituan eiztari orrek, eta pentsatu omen zuten aietako bi erretore jaunari eramatea. Bai eramam ere etxeakoandreak.

Pentsatu du igandean bazkaltzen jatea apaiz jaunak. Baiña ez dio esan goizean neskameari nola preparatu. Eta, meza nagusia ematen ari dala, gogoratu zaio ez diola esan eperrak preparatzekorik neskameari. Koru azpian egoten omen zan au, ta Maritxu omen zuan izena; eta onela abisua eman omen zion:

Maritxu, Maritxu korupeko:
armarioan dagoan eper-parea prantatzeko,
olioa bear duala prejitzeko,
erdia prejirun,
beste erdia gisarun,
per ormnia saecula saeculorum.

Eta neskameak entenditu omen zuan; da, elizatik aterata, an joan otiieii zar1 eperrak pranatzera.

Ori ez dakit ala pasea izango zan. Baiña guk askotan entzuna degula bai.

Beste gauz bat, au erri txikietan danetan ikusten zana zan, iñor iltzen zanean: etxe-jabeak baziran, igandero, meza nagusirakoan, lau librako ogia eramaten zala; maizterrak baziran, bi librakoa; eta argizai-argia piztuta eduki mezako denbora guztian. Oitura oiek zuzen betetzen ziran garai aietan. Eta beste etxekoandre askok, berriz, opillak.

Etxean ere pozik jango. Baiña ala ziran orduko etxeoandre asko edo geienak. Eta jaietan, zakuka ogia eramaten zuten monagilloak erretore-etxera. Gauz oiek geuk ikusiak gazte-denboran.

Baiña orduan ere ez ziran danak berdin pentsatzen zutenak, eta baziran kritikatzan aritzen ziranak batzuek, eta modu ontan itzegiten zutenak: ildakoak ez zutela jan bearrik; ezta ere argibearrik; eta apaiz jaunak aste guztirako ogia izaten zutela, ta abar.

Baiña asko bildu ezkeru, uste det sankristau ta monagilloak zerbait baliatzen zirala.

Orduko sankristauak bai merezi ere zerbait, apaiz jaunai asko laguntzen zioten gizonak izaten ziran-da, jornalik gabe.

Elizara eramaten zan ogi onek, badu bere istoria. Guk onela entzun izan genien gure aurrekoai.

Gurean eta beste inguruko erri koskor aietan, basarri askotakoak beor batzuk izaten zituzten Aralar mendian udaran. Ez zitzaizkaten ezer kostatzen, amalau errik baitzuten partea Aralar'en, eta ez zeukaten ezer pagatu bearrik. Erri aietakoak debalde zeukaten mendiko larrea.

Baiña neguan, elurteak ematean, etxeetara ekarri bear. Mendian ilko ez baziran, jetxi egin bear, eta naiko gaizki ibiltzen ziran batzuek beintzat. Beientzat geiegirik Ez ta aientzat ere bear zerbait. Otea edo txillarra edo sasia janda egon bear izaten zuten.

Bein batean, gizon bat joan omen zan beorrak edo abereak etxera ekartzeko asmoz; ta elurrak eman mendian eta galdu.

Arrastorik gabe gelditu omen ziran etxeakoak; eta, egiñalak egin arren, arrastorik atera ez. Ta, etsi zutenean illa izango zala-ta, elizkizunak egin omen zizkaten; eta bere pamilikoak, besteak bezela, jaietan lau librako ogia ta argizaia zintzo eramakn omen zituzten.

Baiña galdutako gizon ori bizirik omen zegoan, leitza-zulora erorita.

Andik urte betera edo geiagora, berriz, beste gizon bat galdu omen zan Aralar mendian, eta baita billatu ere, egun batzuk igaro ondoren, leitza-zuloan miatzen asita.

Egin dute modua ateratzeko karraxi-otsera edo nolabait beintzat, eta lengo urtean galdutako gizona ere an omen zegoan sano eta salbo oraindik. Eta galdetu ziotenean, ala esan omen zioten: arek naiko ogia ta argia izan zuala, an egon zan denboran; etxeakoak jaietan eramaten zuten ogia ta argia izango zirala, dudarik gabe.

Orra or ejemplo ederra, iñori on egiteak, batez ere elizan, eta nunai, zer ondoren ekartzen duan. «Egin dezagun on, ez dakigula non».

Beste erri txiki batean gertatua onoko gertakizun au ere, parrokoa ta sankristauaren artean. Onela gertatu omen zitzaizen tellatuarekin.

Itotea maiz jartzen parrokoaren tellatuan, eta sankristaua eraman arazten omen zuan kentzeko. Baita sankristaua pozik joaten omen zan. Arrantxo ederra ematen omen zion neskameak eta arek ura nai. Maiz samar naiago noski, gaiñerakoan ez zuan izango irabazi aundirik garai aietan eta.

Au egiten omen zuan sankristauak, tellaren batek txulo txikiren bat omen zuan eta ura tellatuan len zegoan tokitik beste aldera eraman da an jarri, eta berriz ere itotea jartzen omen zan tellatuan. Malezi polita sumatu zuan arrantxoa irabazteko.

Ala segitu omen zuten, apaiza konturatu zan arte.

Orduko sankristau aiek egiten zuten lana pranko jornalik asko gabe, nere ustez, garai aietan: kanpai jotzen goizean -amizkilla esaten zitzaion-; gero eguardian amabietakoa; eta gero illunabarrean aimarietakoa. Egunean iru al diz egunero.

Eta iñor iltzean ere berdin. Baiña kanpai-soiñu diferenteak oso. Gizasemea bazan, modu batera; eta emakumezkoa bazan, beste batera. Guk ezagutzen genduan kanpai-otsetik, gizasemea zan edo emakumezkoa zan, etxetik.

Beste onoko txiste au ere entzun izan diot nik norbaiti ere. Ez dakit zeñi, baiña bateonbati. Ez da nik sumatua beintzat. Lezo'n gertatua zala esan zidan neri, eta apaiza ta sankristauaren artean sumatua zala.

Oso beartsu bizi omen ziran apaiza ta sankristaua, ta an bai omen zegoan, elizako bodegan, Santo Kristo zarren bat alperrik; eta elizinguruan lurrean zuloa egin da sartuko zutela, ta artoale batzuk nastu lurrari, ta urrengo egunean, txerriak an ibiltzen zirala ta arto-usaian aiek aterako zutela lur gaiñera.

Ala atera omen zuten. Eta milagroa izan zala ta jendea erruz asi omen zan ara biltzen. Eta apaiza ta sankristaua ondo bizitzeko moduan jarri omen ziran.

Gauza auek ez dira izango egiak, bateonbatek sumatu edo moldatuak baizik. Nik ala pentsatzen det beintzat.

* * *

Beste au neri esan zidana Abaltzisketa'koa zan. Baiña ez zidan esan nun gertatua zanik. Nik pentsatzen dedana auxe da: Orendaiñ'en pasea ote dan, an prailleak aspalditik dira eta orregatik, prailleen eta basarritarren arteko kontua da-ta. Onela kontatu zidan neri, gutxi gora-bera:

Bi mutil soltero bizi omen ziran aitona edade aundiko batekin, irurak basarri zar batean.

Aitona jaiero meza nagusira joaten omen zan, osasunez ondo zegoan denboran. Eta meza nagusi ondoren, bere lagunakin eta prailleakin tertulian egoten omen ziran zimeterian.

Jai batean, palta aitona, ta praillea asi da galdezka:

- Gaur ez zaigu etorri Jose Iñazio. Ez ote dago ondo-edo?

Eta esan diote beste lagunak:

Ez. Oi-alde egon bear du trankazoarekin-edo.

Garai aietan, gaur gripe esaten dan bezela, trankazoa esaten zitzaion.

Negu garaian, noski, otz aundiak egiten omen zituan garai aietan basarri zar aietan ere, eta aitona gizarajoa otzaz dardar.

Praillea joan omen zan bisitatzera eta atea kaskas jo omen zuan. Atera zaio seme bat eta prailleak:

- Jainkoak arratsalde on.

- Bai berorri ere.

- Zer moduz zerate, ba?

Eta erantzun omen zion semeak:

- Ementxe. Lengoan astoa ekarri Tolosa'tik erosita eta oso gaizki daukagu.

- Orra! Suerte txarra orduan ...

- Bai, jauna. Oso txarra.

- Eta aita?

- Ura ere ondo ez.

- Ala esan didate meza nagusi ondoan beste lagunak: trankazoarekin dagoala-edo...

- Bai. Ura ere an daukagu oiean.

- Ikusi al liteke-edo?

- Bai, bai. Goazen. Ikusiko degu.

Joan dira koartora ta prailleak:

- Jainkoak arratsalde On, Joxe Inaxo. Zer moduz zaude, ba?

Ementxe otzak nago. Izan ere, gure etxe ontan, astoa gaizki daukatela-ta, manta kendu zidaten ari jartzeko ta ni emen otzak nago oso.

Baiña prailleak ekarri dizka beien etxetik bi manta aundiak eta bota dizka aitonari gaiñera; ta aren poza gizarajoak, gauerako berogarri zuenean.

Eta prailleak esan diote:

- Biar pratikantearekin etorriko naiz. Zer esaten dion ikusiko degu.

Ala, etorri omen ziran biak urrengo egunean da miatu du aitona. Eta ez zegoala ain gaizki, baiña urte asko zeuzkala ta bere animako lanak egitea ohea izango zuala, eta abar.

Bildurtu dira gure mutillak, eta batek ala dio besteari:

Ekarri bearco dizkiagu galletak eta ardo gozoa, ta azukrea ta kafea-ta, iñor etortzen danean emateko. Eta oillo zar bat il ere bai salda egiteko.

Bat joan omen zan dendara ta ekarri omen zituan gauzak, bear ziranak, jendearekin kunplitzeko, eta baita ere oillo zar aundi bat il. Erdia sartu dute eltzean salda egiteko. Baita egin ere salda ederra noski, orduko oilloak salda ederra egiten zuten-eta. Probatu dute eta:

- Ona ematen dik, e? - batak besteari.

- Bai. Ala ematen dik.

Eta ala dio batek besteari:

- Aitari emango al ziot probatzeko?

- Nai badek, emaiok. Aber zer esaten duan.

Eman dio aitari eta ala dio aitak:

- Au dek gauza, motell! Olakoa maiz samar ekarriko baidakek, artuko nitek pozik.

Eta gero beste anaiak:

- Zer esan dik aitak?

- Oso ederra dagoala ta berriz ere emateko esan zidak.

Eta anaiak ala esan omen zion:

Ez zaiokela eman, motell, gastuak eginda zeuzkeagu-ta

Baiña anai batek, besteak ez zekiala-edo, eraman egiten salda ta beste gauzak, eta sendatu egin omen zan gure aitona, Joxe Inazio gizarajoa.

Orra or bi anai, biotz ezberdinekoak izan nunbait.

Ondoko beste gertakizun au ere, Goierri'n giñan garai aietan entzun izan genduan. Nik ez dakit txistea dan edo bateonbatek sumatua dan. Nik oraindik gogoan daukat beintzat.

Abaltzisketa'ko Aiuntamentuan Kontzejuko aulkia motxegia omen zeukaten. Danak biltzen ziranean, ezin kabiturik ibiltzen omen ziran beti. Eta pentsatu dute, bi bei-pare errian diran onenak bi muturretatik erantsi ta luzatuko dutela, plazara aterat a.

Urrengo egunean baita prueba egin ere. Baiña aulkia len bezela gelditu omen zan.

Orduan pentsatu omen zuten berria egin bear ko zutela. Aritz on bat erri-basoan botako zutela. Urrengo egunean joango zirala danak aritza aukeratzera.

Joan dira danak, aukeratu dute aritz eder bat eta asi dira bata besteari galdezka:

- Ik aizkora ekarri al dek?

- Ez. Nik ez.

Besteak:

- Nik ez.

Ta danak ez ta iñork ez.

- Zer egin bear diagu orain?

Etxera joateko oso urruti ta bati bururatu zaio: etxera joaten ibilli gabe, ura jarriko zala goiko adar batetik zintzilik, eta aren anketatik besteak zintzilik jarri, ta danak batean indarra eginda botako zutela.

Danak jarri dira zintzilik, eta goikoak:

- Pronto al zerate? Besteak:

- Bai. Pronto gatxik

Eta goikoak:

- Orain itxogin piska batean, nik eskuai txistu eman artean.

Eta, goikoak utzi dionean, danak lurrera. Ango zalapartarekin erbiren bat sasi tartetik atera ta an joan omen zan mendian gora, ta batek ala omen zion:

- Bateonbat il zaiguk emen. Ara an nun dijoan anima betik gora mendian zear.

Nik ez dakit zer izan liteken: pasea edo txistea. Baiña gure gazte-denboran olako moduko kontuak entzuten ziran.

Urrengo egunean danak aizkorarekin joatekotan gelditu omen ziran. Nik ez dakit andik aurrerako konturik: zer egingo zuten.

Beste txiste edo gertakizun au, Naparro'ko erri txiki batean gertatua zala entzun nuan nik.

Ango basarriren batean pamili aundiren bat bizi omen ziran. Oso beartsuak eta ume txikiak oso oraindik, eta esnerik gabe gelditu umeentzako ere. Ganadu asko ibiltzen omen zan mendian denbora aietan larrean, eta pentsatu dute, aita-semeen arte bei-esne on bat ostu ta ekartzea etxera, umeentzat esnea izan zezaten. Baita ekarri ere beia, bien artean arrapatuta; eta danak kontentu etxean, esnea zutenean umeentzako.

Baiña ala bearrik, aitona edo aita oso gaixorik jarri zaiote, eta sendagilleak elizakoak egiteko esan diote, bada ezpada ere.

Eta apaizak esan dio, bei ura ekarri zuten tokira eraman egin bearra zutela; bestela, inpernura joango zala betirako.

Apaiza joan zanean, semeak aitari galdetu omen zion zer esan zion beiarengatik.

Eta aitak, beia eramateko ekarri zuten lekura; bestela, betiko inpernura joan bearko zuala, esan ziola apaizak.

Eta semeak ala esan omen zion aitari:

- Baiña beia erarnmanda, gure etxean nola bizi bear dute? Esnerik gabe gelditzen dira, ta ez da posible

bizitzea. Baiña, aita: inpernuan ere, zortzi bat egun pasa ezkeron, oitu egiten omen da, ta andik aurrera ondo egoten omen dira an ere.

Eta aitak ala esan omen zion semeari:

Motell, nola edo ala pasatuko al dizkiat, ba, zortzi egun an ere.

Eta semea konporme bere beiarekin.

Ez dakit aitak zer egin zuan. Ez det entzun izan eta ezin dezaket geiago idatzi gertakizun orretzaz.

Ala bazan, ez bazan, sartu dedilla kalabazan.

Neri ipui au badakit zeñek kontatu zidan: Altza'n, Anselmo Zugazti'k.

Argiña zan eta kanposantuan aritzen zan sepulturak egiten. Umore aundiko gizona zan eta basarritarren ingurura arrimatzen zan askotan. Gurekin Martillun'go tabernan izaten zan ta nik an entzun nion txiste au. Baiña geiago ere esaten zizkigun. Nik au bakarra daukat gogoan. Onela kontatu zigun egun batean, kuadrillan geundela, Martillun'en.

Naparro'ko mendi-etxeren batean zala. Pamili aundia omen zuten, eta aitona oso zarra. Ezertarako gauza ez.

Gizarajoak enbarazo egiten nunbait, eta semeari gogoratu zaio, arratsean mendiko leitza-zulo batera botatzea.

Baiña etxetik urruti samar leitza-zulo ori ta badijoa aita bizkarrean artuta. Baiña nekatu da eta arri aundi baten gainean eseri da, atsedean artzeko.

Eta aitak ala esan omen zion semeari:

Nik neronek ere ementxe itxogin niken, aita leitza-zulora bota nuanean. Ta iri ere beste oinbeste gertatuko zaik.

Semea pentsatzen egon omen zan piska batean, da berriz bueltan etxera eraman omen zuan aita zarra.

Geroztik ez omen zan ezer gertatu. Pakean bizitu omen ziran. Ala obe.

Ezkonberriak Goierri'tik Donosti'ra etorrita, otelean edo fondan apaldu bapo ta ango serbitzariak eraman ditu beren lotoki edo koartora. Ta erantzi diranean, esan dio andreak senarrari:

- Argi ori itzali zazu.

Baiña aiek ez zekiten argi eletrika zer zan ere, ta nola itzali ere ez.

Jarri da silla gaiñean ta gizarajoa asi da aizeka, itzaliko zalakoan. Baiña ura ezin itzali eta esan dio andreari:

Jarri zaitea zu beste aldetik, aber itzaltzen degun bion artean.

Baiña ezin zuten itzali iñola ere, eta senarrari bururatu zaio zer egin: botak zituan eta bonbilla botaren barrenean sartuko zuala, ta lokarriarekin goian estu-estu lotuko zuala ta illunduko zala gela edo koartoa.

Ala egin omen zuten. Baiña urrengo egunean galdetu omen zioten serbitzariari, eta arek esan omen zioten nola itzaltzen zan. Ez omen ziran asarre gure ezkonberriak.

Beste gertakizun au Astiasu'n gertatua izan bear du. Neri ala esan zidaten beintzat. Santa Ageda ta Atxunberri aizkoran jokatu ziran garaian pasea omen zan.

Bi gizon oiek askotan jokatuak modu askotara. Batek bein irabazi eta urrengoan bestea, orrela ibiltzen omen ziran, alkarrari obeditu ezinik. Biak aizkolari izugarriak omen ziran, ta gizon aundiak benetan. Denbora aietan ziran pamatuenak Euskalerrian, eta jende asko biltzen omen zan aiek ikustera.

Bein batean Tolosa'n jokatzekoak omen ziran, eta Astiasu ta inguruko erri guztietako jendeak joatekoak, apustu pamatu ura ikustera.

Astiasu'ko basarritar batek esan omen zion andreari:

- Nik ere joan bear det aizkora-apustua ikustera.

Eta ala erantzun omen zion:

- Nola joango zera ba zu, alkandorarik ez daukazu jazteko modukorik-eta? Dirurik ere ba al dezu? Trabesean jokatu naiko dezu ba zuk?

- Bai. Arakiñak emango didala esan dit, txekorra saltzean ordaintzekotan.

- Eta alkandora?

Andreari esan omen zion:

- Zoaz. Aldeko Joxe Iñaxiok izango du eta eskatu iozu.

Joan omen zan andre gaixoa, aber alkandorarik bai ote duan, eta ala esan omen zion: bai, bazuala; baiña berak ere joan bear zuala ta ez zegoala besterik.

Andre gaixoa alkandorarik gabe etorri etxera, eta ala esan omen zion senarrak andreari:

Kaka egiten diot nik, alkandora bat besterik ez duan gizonari.

Baiña andre gaixoa kupitu egiten eta jarri omen zion trapu txuri puska batekin lepoan eta petxuan, eta orra pakea egin bien artean. Eta gizonari esan omen zion andreak:

- Iñork ezer esan edo galdetzen badizu, esan eztarriko miña dezula. Gizona pozik apustua ikustera Tolosa'ra. Eta arakiñak emandako diruak trabesean jokatu eta irabaztea tokatu gaiñera. Ta andreak, irabazitako diruarekin alkandora berria erosi omen zion, eta biak kontentu.

Beste au, Errezil'ko bi basarritarren artean gertatua izan bear du. Neri ala esan zidaten beintzat, orain dala urte asko. Tolosa'tik Errezill'a bidean gertatua zala.

Bi basarritar tokatu alkarrekin peritik etxera. Bat sesio-jartzaillea omen zan oso; eta bestea oso gizon ona, pakezalea.

Biak badijoaz etxe aldera, kontua esan ta kontua esan. Eta sesio-jartzaille arek sesioa jarri nai; eta bestea, bildurrez utsegingo ote zuan:

- Bai, motell, bai! - beti bai erantzunez.

Iritxi dira beren bide-kurutzera, ta ala esan omen zion apartatzerakoan:

Beti bai ta bai? Ez esan bearrekoa pranko bauan or tartean.

Eman omen zion berebiziko masaillekoa gizarajoari, ta:

Gauon pasa. Orra pakezaleen propiña ederra orduan ere. Ala bazan, ez bazan, sartu dedilla kalabazan.

Beste au ez dakit ipuia dan edo gertatua. Baiña bai ikusia ere.

Goierrin giñan denboran, egonaldi galantak egiten basarriko etxeoandre pranko. Geronek ere ikusi ditugu, jai-arratsaldean bezperetara joan da etxerakoan, bidekurutzetari ezin apartaturik berriketan jarri ta maixeaketan batengatik edo bestearengatik, bukatu eziñik.

Eta, ala, entzun nion bein gizon bati onoko txiste au. Txistea izango da noski.

Bi basarritar, emakumezkoak, bidekurutzean izketan zeudela, gau guzia pasa ta eguna zabaltzen asi omen zitzaioten. Eta batek besteari esan omen zion:

Neska, eguna zabaltzen asi din, eta gaurkoagatik joan egin bearko diñagu etxera, urrengoan denbora geixegoan egongo gatxin da.

Ez zeukaten damurik denbora askoan egondakorik. Izan ere, orduko etxeokonde askok ez zuten aste guztian ezertxo ere jakiten kontu berririk, eta jaia etortzeko desiatzen egoten ziran gaixo aiek, lagunakin egoteko irrikitzen. Ez zuten ez irratirik ez telebistarik. Pentsatu ere ez orrelako gauzikan. Bakarrik elizako liburuak eta errosarioak. Orrela zan aien bizimodua.

Beste gertakizun bat badet entzuna, eta ernen jartzera noa. Goierri'ko erri txiki batean gertatua omen da. Ez dakit zein erritan pasa izango dan edo txistea dan. Nik entzuna aspaldi xamar, eta onela gutxi gora-bera.

Erri ortan ba omen zan basarri on bateko seme bat erdi tontoa. Edo oso normala ez omen zan aren burua.

Gurasoak zerbait egin nai mutil orrekin, eta apaiz jaunarekin tratatu dute, eta pentsatu dute konbentu batean sartzea. Sartzeko modua egin dute apaiz jaun orren bidez, kosta ala kosta. Gurasoak ere konforme konbentura eramateko, eta eraman dute beren mutil ori.

An denbora-aldi bat pasa ta gero, etorri da gure mutilla bere etxera. Piska bat espabillatua ikusten zuten apaizak eta gurasoak, eta pentsatu zuten urrengo jaiean kulpitutik itz batzuk esan eraztea, nola espabillatu zan mutil ori erriari adierazteko. Apaiza jarriko zala kulpituan gordeta, eta apaizak esaten zuana mutillak esatekotan.

Gure mutilla igo da kulpitura, praktako botoiak lotu gabe, eta apaizak esaten dio:

- Praktako botoi oiek lotu itzik.

Eta mutillak kulpitutik indar guziz:

- Praktako botoi oiek lotu itiik.

Eta apaizak:

- Iri esaten dit, iri.

Ala dio mutillak berriz:

- Iri esaten dit, iri.

Eta orduan esaten dio apaizak

- Jetxi adi, jetxi. Irekin ez ziok karrerarik ateratzerik, eta lengo tokira joan bearko dek berriz ere.

* * *

Nik ezagutu nuan emen, auzoan, gizon bat oso rubioa zana. Eta esaten zioten ez-izena edo izengoitia esanda, askotan errez ulertu ere bai.

Basarritarrak asko ditugu orrelako izengoiti dutenak. Lendik datorren oitura degu orixe gure artean.

Gizon orri *Subegorria* deitzen zioten, eta oitura izugarria zuan besteren palloak billatzen, eta desaiidea edo tildeka askotan tabernan, da nunai ere bai noski.

Egun batez, auzoan ari omen ziran lurra maniatzen. Aldapa samarra izaki terreno ura ere, beste askoren moduan, eta an tokatu gizon rubio ori, eta ezin egon ixilik. Tildea bota bear ari ere.

Aldaparen goiengan koska izan oi da. Lurra bera joaten da ta an kosha aundia goiengan, eta onela bota omen zion an lanean ari zanari:

-Zeitarako dek goiko koska ori: nekatzean eserita egoteko, ala?

Eta besteak erantzun omen zion:

- Ez. Subegorriak gordetzeko jarri diat.

Bestea asarratu egin omen zan gogotik. Baiña esaerak onela esan oi du: «Nai duana esaten duanak, nai ez duana entzuten du».

Gizon orri berari beste egun batez, sasoi zuan denboran, gertatua. Ulia menditik zakarretan azpigarria ekartzen zebiltzala, gurdi kargatuaren gaiñetik jeixteko salto eginda, anka-ezurra autsi egin zitzaion, eta asko supritu bear, nai ta nai ez, ura andik bear zan tokira eramaten.

Andik denbora-puska bateia, anka ondo jarri ta gero noski, juntatu dira.

Askotan biltzen ziran garai aietan basarritarrak, gaur baiño geiago, illunabarretan, jauean da astelenean. Eta ostegunetan ere askotan, Ernani'ko perian izan da bueltan.

Emen, Martutene'tik Altza aldera, bazan basarri-taberna bat. An biltzen ziran ingurukoak-eta basarrirar-mordoska arrantxo egitera, eta gizon rubio ori ere bai, geienetan tildea boteaz.

An bazuten aien artean bat ondotxo edaten zuana, ta ari ere bota omen zion beie tildea. Iñular batean ikusi du ondotxo edan da etxe aldera joaten; eta urrengo egunean, berriz juntatu ziranean, pentsatua zeukan zer tilde bota ari ere. Iñaxio zuan arek izena eta onela esan onen zion:

- Iñaxio: atzo ondo eraman al uken jornada etxeraíño, ala?

Ta besteak ala erantzun omen zion itzetik ortzera:

- Bai. Ondo eraman niken. Ik bezela anka puskatu gabe eraman niken, ba.

Eta gure gizon gorria asarratu gogotik. Nai zuana esan zion, baiña nai etzuana aditu bear.

Orain garizuma-garaian gauden ezkeru, onoko gertakizun au jarriko det urrena: ijitoaren konpesioa.

Ijitoa joan omen da konpesatzera. Ta, konpesatzen ari dala, prailleak galdetu omen zion ezer ostu al zuan.

Da ijitoak:

- Ez nuan ostu, ezin nualako. Baiña desioa banuan arkume bat ostutzeko. Ate-zulotik eskua sartu ta arrapatu nuan. Baiña arkumea etzan pasatzen ate-zulotik, eta an utzi bear izan nuan arkumea bertan.

Orduan esan zion prailleak:

- Ba, ostuta bezelaxe egin zenduan pekatu intzioarekin edo desioarekin.

- Nik nola ordaindu bear del pekatu ori?

Eta prailleak esan omen zion:

Neri emaidazu duro bat, nik meza bat aterako det eta barkatuko zaizu pekatu ori.

Orduan ijitoak duroa eskaiñi zion emakumeak konpesatzen diran tokitik, baiña ez pasatzen andik duroa. Prailleak eltzen omen zion barrendik, baiña ezin artu. Eta ijitoak orduan esain omen zion:

Ni ere desioarekin gelditu nintzan; eta berorri ere ala gelditu bearko du. Biok kito gelditzen gera, ta agur.

Beste ijito bat, Garizuman au ere, joan omen zan. Mixiolariak mixioetako denboran lan asko izaten zuten garai aietan, orain baiño geiago beintzat, eta lo artu omen zion mixiolariak; eta ijitoak patrikatik lau ontzako ostu omen zizkan prailleari.

Esnatu zanean, galdetu omen zion prailleak:

- Zertan giñan, aizu?

Eta ijitoak:

- Lapurretako kontuan, jauna.

- Ezer ostu al dezu?

- Bai. Lau ontzako.

- Ba, jabeari ordaindu bear dizkiozu.

Eta ijitoak:

- Tori, jauna.

- Ez, neri, ez. Jabeari.

- Ez dizkit artu nai, ordea.

Eta orduan prailleak:

- Erdi bana egingo degu. Neri ekatzu bi, ta zuretzat beste bi. Nik mezak aterako ditut eta kito.

Baiña gero, meza emateko kanbiatzea joan zanean, konturatu zan lau ontzakotatik bi palta zituala.

Komunioa emateko denboran, ezagutu prailleak ijitoa, eta esan omen zion:

- Aizu: bi ontzako aiek nereak dira.

Eta ijitoak erantzun omen zion:

- Konpesioko gautak ixilik.

Nik ez dakit ala pasea zan edo txistea dan; baiña bai guk ala entzuten genduala, gazteak giñan denboran.

Onoko beste au gogoratzen zait orain, eta emen jarriko det. Ez dakit zeñek jarria izango zan.

Nere konpesioak
dirade bakarrak,
ez nekatzeagatik
abadetxo jaunak.
Maizago ein lezake
gogua daukanak,
urtean bein eiten ditut
animako lanak.

* * *

Ijitoak astoa ostu dute menditik, eta eraman Tolosa'ko perira saltzeko asmotan. Eta basarrirarra ere an.

Ezagutu du bere astoa an dagoala perian. Arrimatu zaio ijitoari, ta basarritarrak:

- Auxen asto polita! Mantsoa al da?
- Bai. Oso mantsoa.
- Eta badaki karga ibiltzen?
- Bai, gizona.
- Eta gizona gaiñean ibiltzen ere bai?
- Bai.

Orduan basarritarrak:

- Utziko nazu or buelta bat ematen?
- Bai, gizona. Eman buelta bat.

Basarritarrak:

- Bereala etorriko naiz, probatu ta bueltan.

Eta basarritarra etxera bere astoarekin. Ederki egiña.

Ijitoak bi anai omen ziran, ta bat tabernara joana garai artan, zerbait artzera. Eta etorri zanean, astoa palta ta ala dio anaiari:

- Astoa saldu dek, e? Zer: prezio onean, ala?

- Bai. Erositako prezioan saldu dit.

Bazekian basarritarra ez zala geiago etorriko astoarekin aiengana. Ijitoa ustez azkarra, baiña basarritarra ere ez tontoa izan.

Len, denbora batean, ijito geiago ikusten zan, inguru auetan beintzat, eskean; ta lapurretan ere bai, orain baiño geiago. Gure Txirrita zarrak jarri zizkaten aieri bertsoak, merezi zuten moduan.

Ijitoen artean pasea izan bear zuan orain jarriko dedan kontu au ere. Nik ala entzun izan nioten gure aurrekoai beintzat.

Naparro'ko mendi-borda batean babestuak omen zeuden ijito-pamili bat. Eta, an zeudela, negu-aldi ikaragarria sortu omen zan urte artan. Orain artean ezagutu dan aundiena noski.

Iñora ezin joan jaten-billa. Elurte ikaragarria omen zan, eta luzea gaiñera, eta jatekoak aitu.

Gose ikaragarri artan, amona zarra omen zuten oso, eta ura il da jatea erabaki omen zuten, pamiliak danak goseak ilko ez baziran.

Kontu au aspaldikoa izango da noski. Orain dala ia berreun urtekoa, Txirritak bertsoan jartzen duanez. Nik onela entzun izan det.

Milla zortzireunian
izan zan kortia,
emen ezautu zana
negua fuertia.
Berrogei egunian
jela ta elurtia,
ijituak amona
jan zuten urtia.

Ni basarri ontara etorri nintzanean, emengo zarrai entzun izan nioten, inguru ontako basarritarrak, Otxoki basarria taberna nola zan, an biltzen zirala. Jokoan aritzen zirala batzuk, ta besteak begira.

Nik ezagutu nituan batzuk, Plazentzi'koak, bi anai: bat Patxiku eta bestea Anton. Patxiku, etxeko maiorazkoa, etxean ezkondata zegoana; ta bestea, Anton, mutilzarra.

Or bazan bastante basarri garai artan. Emen jarriko ditut batzuen izenak: Baratzategi, Tuniz, Sagastieder, Etxeberri, Arjel-aundi ta Arjel-txiki, Arrues, Buztintxulo, Basotxiki, Sagategi, Lizardi, eta abar ta abar.

Ez ditut danak gogoan orain. Baiña baziran beste oinbeste guzira. Orain etxez bete dira, len basarriak ziran tokiak.

Garai aietan or basarri asko zan, Egia aldetik asi ta Altza aldera. Geienak Altza partekoak ziran. Gutxienez emeretz, ogei edo geiago bota zituzten, ta Altza gelditu zan oso basarri gutxirekin.

Orduan puntuan aritzen omen ziran geiena kartajokoan. Orain musean edo tutean aritzen dira geien noski. Garai aietan, berriz, musean gutxik jakingo zuten, nere ustez.

Nik entzun izan dedanez, puntuan ari omen ziran lau lagun, eta beste bi lagun trabesean, baten alde eta besteen kontra. Ala ari zirala, batzuk beti galtzen da besteak irabazten. Galdutakoak beti ernegatzen.

Antton Plazentzi ori ere an tokatu begira, ta zirikatzaile izugarri egokia omen zan, erdi bertsolari oietakoa, eta galtzen ari zanak esan omen zion Anttoni:

- Motell, esan litekek i eroa agola alde batera.

Eta Anttonek ala erantzun omen zion:

- I, berriz, bi aldetara.

Erantzun polita Anttonek emana galtzen ari zanari.

Otxoki'n biltzen ziran kuadrilla ortan, bai omen zan ezin esana zuana. Mutilzarra omen zan. Nik ez dakit zein izango zan. Nik ez nuan ezagutu, baiña izugarria omen zuan bolaretan.

Alako bolara txar batean, gertatu omen zan ezin erabakirik, kontuak esaten ari zala, gizarajoa. Eta Antton Plazentzi an tokatu kuadrillan, ta ola esan omen zion:

- Gaur ezin badek esan, biar esanda igual dik.

Eta besteak:

- Nik masailleko bat ematen badit ta ura naikoa ez badek, biar emango dit bestea.

Gauza auek ez dira nik entzunak, baizik Otxoki taberna zala gertatuak eta nik aurreko zarrai entzunak.

Beste au, gertakizuna edo txistea, nik ez dakit zer izango dan. Nik aspaldi entzuna da nere lengusu bati. Loiola'n bizitzen zan nere lengusu ori. Jose Martiarena zan, eta gure etxera askotan etortzen zan.

Igeltsero ibiltzen zan eta lan asko egin zuan etxe zar ontan, bazan zer egiña pranko-ta.

Gaiñera, bertsozale izugarria zan ura ere, ta biok aritzen giñan, denbora genduanean eta umorean jartzen giñanean, sagardo-puska bat edan ondoren, jaietan askotan.

Onoko gertakizun au ere arek kontatu zidan neri, ta onela da gutxi gora-bera. Baiña gertakizun au oso antziñakoa izan bear du. Jesukristo jaiio baiño askoz lenagokoa, esaten zuan arek.

Euskalduna ibilkaria dala eta bi euskaldun atera omen ziran erriak ikustera. Lenbizi, Bartzelona' ko errira. Artean ez omen zuan izenik Bartzelona'k.

Bi euskaldun oiek iritxi omen ziran gaberako, ler egiñak. Zerbait jan da lotarako tokia billatu omen zuten, eta lotara. Batek besteari onela esan omen zion:

- *Bueno!* Biar esnatzen geranean, lenbizi esaten degun izketa izango da erri onen izena.

Oso nekatuak, lo batean pasa gaba; ta, bat esnatu danean, onela esan omen zion besteari:

- Bart ze lo ona egin dedana!

Eta besteak erantzun omen zion:

- *Bueno!* Erri onen izena Bartzelona izango da emendik aurrera.

Gero, andik Sebilla'ra joan omen ziran gure rnutil euskaldun oiek. Oiñez, jakiña, ez zan izango nun ibillirik gaur bezelala. Ez dakit zenbat denbora bearko zuten batetik bestera joaten.

Eta an berdin pentsatu omen zuten, lotarako tokia billatu zutenean:

- Bueno! Gaba pasa ta urrengo goizean lenbizi egiten degun izketa izango da erriaren izena.

Ta, jeiki ta jazten ari zala, bati zerbait erori egin omen zitzaion, eta aren billa omen zebillen, eta besteak esan omen zion:

- Ze billa abil or?

- Ba, emendik aurrera, erri onen izena Sebilla izan dedilla.

Gero, Bitori'ra joan omen ziran, ta an ere berdin pentsatu omen zuten:

- Biar goizean, lenbizi egiten degun izketa, erri onen izena.

Ala, urrengo goizean, asi omen zan zigarroa egiten bietan zarrena, eta gazteenak kiñu egin omen zion zigarroa emateko. Eta zarrenak esan omen zion:

- Gazte aiz i oraindik, zigarroa erretzeko.

Eta orduan esan omen zion gazteak:

Bueno! Erri onen izena Gazteaiz izango da.

Geiago ere esaten zituan arek. Baiña nik ez dakit besterik, eta orrenbestez bukatzen det sail au.

LENGO TA ORAINGO BIZI-MODUA

Gazte-denbora ta sasoidenbora igaro ondoren, etortzen zaio zartzaroa bizi danari. Danak ez dira iristen ortara, ni iritxi naizen neurriraiño.

Gazteago geiago iltzen da, zarragoak baiño, nere ustetan; eta ez diogu bear ainbat esker Jainkoari ematen. Ni au pentsatzen egoten naiz askotan.

Gu, zarrak edo edadetutako pertsonak, or gabiltza, jubilatutako jendeak, autobusetan batera ta bestera. Egun ederrak pasatzen ditugu, nere ustez, eta merke gaiñera. Lengo urtean ere egin genitun lau ibilli-aldi batera ta bestera umore ederrean, soiñu ta bertso ta kanta ta abar.

Askotan gogoratzen zaizkit gure aurreko zarrak. Aientzat ez zan alako ibillaldirik, ta ezta ere zar-saririk, eta askotan zigarrorik ere ez. Pozik erreko ta pipa betetzeko tabakorik ez askotan. Zigarro-erretzaille askok etxean ereiten zuten tabakoa udaran.

Orrela bizitu ziran gure aurreko aiton-amonak. Za-saria edo jubilazioa sortu zuanak, gauz on bat sumatu zuala esango nuke nik, ta eskerrak eman bear dizkiogu ori sumatu zuanari, zein baitzan ere.

Gure belaunaldi ontan gauz on asko ikusten ari gerala ezin ukatu dezakegu, munduko bizitza ariñagoa eramateko edo errezago eraman dezagun, makinariaren laguntzaz, bai tallarretan eta bai bideak eta etxegintzan eta abar ere.

Lur lanerako, orain arte ez ziran gauz askotxo ikusten ari gerala ezin ukatu, gure gazte-denboratik onera.

Sukaldean bertan, gaurko emakumeak badute alde ederra lanak egiteko, gure aurrekoetatik onera. Aiek ez zuten ikusi su bajua beste gauzarik, eta lan danak an egin bear. Ez urik ere sukaldean, eta iturritik ekarri bear, sukaldean izango bazan. Erropa garbitzera errepara joan bear. Bastante urrutira gaiñera, legortea tokatzen zanean, erreka xeak agortu egiten ziran-da.

Oietako ta erropa zuriak garbitzeko, ogei egunetik edo illean bein egiten zan lisura esaten zitzaion garbiketa berezia. Tinia esaten zitzaion egurrezko ontzi bat izaten zan, iru anken gainean, barrika bezela, goia irikia zuana. Erropaz bete ia goraiño, ta goian utzi toki piska bat surtako autsa jartzeko, ta gaiñetik ur irakiña bota. Azpitik ateratzen zan ur ura, gaiñerako erropa kolorezkoak garbitzeko. Autsur aiek erropari zikiña samurtu egiten zion, eta errepara joan bear gero,

jaboiarekin erropa dana garbitzera. Orduan, familia aundiak ziran tokietan, astoarekin erropak erre kara eraman da ekarri egiten zituzten geienak.

Garai aietan pamili aundi sarnar asko ikusten ziran gure basarri zarretan, baiña ez gaur bezin txukun jantziak. Ez zan posible izango, askorentzat beintzat. Ez baitzan modurik erropa berri asko erosteko. Ta zarrak konpondu ta al zan moduan ibilli bear. Baiña bai pamili galantak azi, ta ezi ere bai bear zan moduan, lujo aundi gabe.

Naikoa egin zutela, naiko merituak bazituztela uste det nik nere kiko, bear ziran errespeto guziakin. Bizimodu latza aiena ta aurrekoena, ta gurea ere bai, ia berrogei bat urte pasa arte.

Baiña orain bizimodua piska bat arindu dala esango nuke. Obeto jan da jantzi, ta ibilli ere errezago egiten da jendea batera-bestera. Baiña kristauok oso zaillak gera munduko gauzaz asetzen: jan-edanez, diruz, jazkeraz, ikusmiraz ta abar eta abar.

Nere iritzia esango det: orain ez gaitezela geiegi itsasi mundu ontako gauza oietzaz. Badala beste zerbait oiek baiño geiago balio duana, ta kontuz ibiltzeko.

Len esan det eta egun ederrak pasatzen ditugu guk batean eta bestean. Orain dala denbora pixka bat, omenaldia ere egin ziguten Loiola'ko *Gure Babesa* egoitza edo jubilatuen etxean. Larogei urtetik gorakoentzat zan, eta ni ere an nintzan tartean.

Egun polita pasa genduan oso. Alde-alde nola izan zan orain esango det: goizean meza entzunez eman genion asera, eta omendu eta beste jubilatatu asko bildu giñan.

Nik, egokia izango zala pentsatuta, danen izenean eskerrak emateko bertso batzuk prestatu nituan, mezagaraiari kantatzeko. Auetxek:

Lendabiziko eskerrak eman
Zeruetako Aitari,
pakean bizi gaitezen danok
maitasunean igari.
Gaurko egunean naiko galdua,
ortik ez dabil ugari,
Jaungoikoa da gure Jabea,
gu beraien serbitzari.

Gora Elkarteko lendakari ta
zure taldeko gizonak,
pozez zoratzen gaude zuekin,
amonak eta aitonak.
Borondatea izan ezkerro
egiten dira gauz onak,
ondo merezi dituzute ta
artu gure zorionak!

Larogei urte eguidakoei
omenaldia eskeintzen,
oiek ez ditu nai dun guztiak
mundu ontan arrapatzen.
Neronek ere iritxitzerik
ez nuan asko pentsatzen,
gu zartu gera baiña etzerate
oraindik gutaz aztutzen.

Irurogei lagunetatik, ogei bat izango giñan euskaldunak elizan. Besteak ere entenditu zezaten, erderaz egin nituan itz batzuk, eta asko eskertu zidaten. Onela gutxi gora-bera:

- Queridos amigos todos, reunidos en esta Santa Misa: a los que no entendéis el euskera, os quiero decir que agradezco de todo corazón a los jubilados, a los que aún no lo son y a todo el barrio de Loyola, en especial al presidente y a la directiva, por el cariñoso homenaje que nos habéis ofrecido. También pido al Todopoderoso paz, union y salud para todos. Un abrazo eta eskerrik asko danori.

Meza ondorengo kontuak nola izan ziran, bertsoen bidez esango det:

Gu elizatik irten-zai zeuden
txistu eta dantzariak,
ongietorri goxo bat guri
egitera etorriak.
Oñak zeuzkaten ariñ-ariñak
eta biguiñak gerriak,
ai zer nolako dantza politak
dituan gure Erriak!

Ondorenean gure egoitzan
oso bazkari bikaiña,
janari onak jarri zituzten
eta aukera nai aiña.
Orrelakoan ez da izaten
erreza artzen tamaiña,
gero, jakiña, ezin eduki
ixilik gure mingaiña.

Bazkalondoan soiñu ta dantza,
beste batzuek kantari,
gutxien egin zutenak ere
pozikan kontu-kontari.
Txalo beroak gu omentzea
erabaki zuenari,
eta eskerrak lanean gogoz
saiatu diran danari.

GAUZ JAKINGARRI BATZUK

Orain gogoratu zait, nik irakurritako gauz jakingarri batzuk idaztea ez dala gaizki etorriko, irakurri ta piska bat aztertzeko gogoia ta denbora artzen duten irakurleren batzuentzat.

Au bururatuta, denbora ere badaukat eta denbora oni zerbait probetxu ateratzen ote dioten pentsatuta, idatziko ditut batzuk bederenik.

Lerro auk ez dira nik sumatuak, gizon estudiantuak eta asko jakiñak idatzi ta utziak baizik, danon onerako izatearren.

Ni Arantzazu'ko kalendariotik idazten asi naiz, guretzako ere atsegin izango zaigulako ustetan, irakurri ta zerbait konturatu gaitezen.

Auek ez dira txistek, egi mardulak baizik, ziur esanak, ikastea komeni zaizkigunak danori. Jarri ditzadan batzuk.

Au esan zuan Sokrates filosofo grezitarrak: Aberastasunik seguruen, ezer gutxiarekin konformatzea da.

Beste au esan zuan Nikolas Boileau poeta prantzesak: Pertsona onak loreak zabaltzen ditu, eta arantzak gorde.

Au esan zuan Edermnd Burke idazle irlandarrak: Beti eta nonai, gure pazientziarekin geiago egingo degu, gure indarkeriarekin baiño.

Beste au esan zuan Herodoto istorilari jentil gieziarrak: Gure eginkizunak zalapartaka egitea da frakaso guztien iturburua.

Au, berriz, idatzi zuan Alexander Pope poeta inglesak: utsegitea gizonena da; barkatzea, jainkozkoa.

Gu, gizasemeok, Jainkoaren irudira egiñak, Jainkoaren antzera bizitzen ikasi bear degu. Barkatzea sendatzea da, geuren onerako ta besteren onerako.

Gaitz egitean, irtenbide asko sortzen zaizkigu barrenean: beste oinbeste egin berari. Ta miñik eman digun aren itxura artu.

Ori ez. Kendu burutik gorroto-azi ori ta barkatu, eta azkeneko onek ematen du lasaipena ta onura.

Eta onela jarraitzei du:

Bein batean, ama batek bere semea iltzen ikusi zuan, politika-lanean besteren aurka jokatu zualako. Garaitzailleak fusillatu egin zuten. Bere amak ez zuan momentu batean ere barkatu. Barrenean gorroto bizia sortu zitzaion; eta, bere semearen orde, beste norbait ilko zala agintzen zion bere buruari. Gorroto onekin bizi izan zan amar urtetan. Azkenean, berekiko tratua aurrera eraman naiean, osasuna galdu zuan, eta zertarako gauza ez zala gelditu. Gaixo-aldian, Kristok egin zuana gogoratu ta asmoz aldatu egin zan: barkatzea zala bengantzarik onena, ta ala egin zuan. Eta bere eziñak eta gaixo-aldiak erabat pasa ziran eta sendatua gelditu zan.

Arantzazu'ko egutegitik idazten det au ere: maitasuna zer dan. Maitasuna da Jainkoaren biotzetik datorren arnasa. Orregatik da egille. Maitasuna dabillen tokian, Jainkoa bera dabil. Orregatik da aundia. Bizitza maitasuna da. Eguzkiak berak ere lurra maite du. Orregatik bizi da lurra. Maitasunik ez dagoan tokian, ez dago ezer.

Telebistari buruz ere onela idatzia dago Arantzazu'ko egutegian. Gaurko egunetan, telebistak eta bestek dakarten arriskorik aundiena, auxe izango da seguruenik: famili-giroa jaten dutela sukaldean. Ori kalte izugarria dala, batez ere aurrentzat eta gazteentzat.

Eta onela idazten du ori dana Aita Esnaola'k: Famili txikia edo aundia izan, gurasoen lanik inportanteena auxe dala: aurrenganako ardura bizia. Gaztetxoak geien bear dutena zer da: Dirua? Kontsejuak? Ez; gurasoak berak baizik. Gurasoen itzala, bista, gertutasuna, maitasuna; auxe da gaztetxoak geien bear dutena. Gurasoen lanik inportanteena, beraz, seme-alabakin bizitzea da. Famili-giro jator batean bizitzea gainera.

* * *

Orain idaztera noan auek Aita Frantziskotarrak idatzitakoak dira. Ni nola naizen irugarrendarra, Atotxa'ko praileak bialtzen dizkidate etxera, iru illabetetik-edo, orri batzuk. Andik idazten ditut. Baiña erderaz jarriak daude, eta bertsoan gainera. Oso ondo iruditzen zait emen jartzea. Onela esaten digu bertso batek munduko bizitza kalbario bat dala:

La vida es un viacrucis,
en él Jesús va el primero,
y cuantos siguen tras él
con él llegarán al cielo.

Beste bertso onek esan nai duna, nere ustez,
munduko bizitza au oso laburra degula betikoarekin
konparatuta, eta onela jartzen du:

Si el Señor te dio la vida
para servirle y salvarte,
prisa a hacerlo debes darte
pues morirás en seguida.

Eta onela jarraitzen du beste bertsoan: ez
engañatzeko geiegi. Mundu ontan ondo bizi dana,
kanposanturako bidean dijoala beti:

No te engañe la salud,
que aunque de ella gozando,
quizás te estés preparando
para pronto el ataud.

* * *

Donostia'n an dago kanposantuko sarreian, ate gainean jarria, egi mardula ta utsegingo ez duana len, orain eta gero:

«Gaur guregatik esaten dutena esango dute gero zuengatik ere: il ziran».

Orra or bein ere utsegingo ez duten itzak, mundua mundu dan arte.

* * *

Onela dator idatzia egutegian itxaropenari buruz: gaur begiratu ta ez degu bearbada itxaropenbide aundirik aurkituko. Gorrotoa eta gogorkeria obeto dabilitza baztarretan. Baiña itxaropena galdu ezkerro, gizon bat, ala erri bat, ezin leiteke urrutira joan. Itxaropenak ez ote du geroa argitzen, naiz-ta aski illuna izan prankotan?

Eta kristau geranok, gure gogo-biotzetan bizi arazi eta azkartu egin bear degu itxaropenaren lorea, eta gero itxaropen ori bera zabaldu gure inguruan, sukaldetik asita. Orretara, egunen batean itxaropen-lore orrek ekarriko du bere frutua ere.

Eta jarraitzen du beste orri batean, esanaz gizonaren bizibidea mundu ontan, laburra ezezik, utsa dala askotan. Eguneroko kurpillak alde batetik bestera garamatza, eta azkenean zer?

Onoko bertso auekin bukatuko det itxaropenaren
gaia:

Izan urte on Jaungoikoagan,
eutsi on egiteari,
eta lurrean biziko zera
leialtasunez kantari.
Jaunagan utzi, al badiozu,
atsegiñez biotzari,
eskatu-ala artuko dezu
opa dizunaren sari.

Utzi Jaunagan zure asmoak,
izaeta ta ondorena,
Bera baidezu bizi-bidean
gidari egokiena.
Zure auzi ta eskubidetan
Bera epaile zuzena,
bere betean sar zaitez eta
sendotu itxaropena.

Orain jartzera noan au neroni gertatua da, orain
dala dozena bat urte inguru gutxi gora-bera.

Bi gizon tratuan ari ziran bei batekin. Begira zuten
beren tratua egiteko asmoa. Bei aundia zan bei ori, eta
batek, saltzailleak jakiña, oinbeste erralde bazala; ta
erostunak ezetz.

Neri dei egin zidan saltzailleak, joateko mesedez. Ala, joan nintzan borondate osoarekin, eta saltzailleak esan zidan zer iruditzen zitzaidan: ainbeste erralde bazala bei ura edo ez zala. Ta nere iritziz bazala esan nion bei-jabeari.

Erostunari ez zitzaion ondo iruditu nik ura esatea, eta gaizki artu zidan. Nunbait pentsatu zuan saltzaillearen alde nintzala, eta onoko kontestazio auxa eman zidan kolpetik:

- Makarroso zikiña! I ere orren alde al aiz?

Neri pena eman zidan itz aiek entzun bearrak, nere berri ondo zekian arek eta. Ni arrituta gelditu nintzan itz aiek esatearekin, baiña ez nion itzik ere bueltatu berari eta ez nion batere gorrotorik artu, eta bizitu giñan urte batzutan bastante urruti alkarrengandik. Baina nik uste det damutu zitzaiola berari ere neri itz aiek esana.

Andik denbora-puska batera, or etorri zan nere lagun ori gure etxera, bein ere baiño argiago ta kariñosoago bere familiarekin jai-arratsalde batean, eta oso egonaldi ederra egin genduan, alkarrekin merienda-lege bat egiñez gure sukalde zarrean.

Nik uste det arek gogoan zeukala neri esandako arrazoi txar ura, ta damutua zegoala neri ura esana, eta obe gaiñera. Azkenean, oso ondo partitu giñan alkarrekin, esku emanaz.

Ez giñan geiago juntatu alkarrekin. Andik denbora-puska batera il zan gizarajoa. Nik deseaten diodana auxe da biotzez: zeruan ikusi dezagula alkar betikotasun osoan. Ala bedi.

Au da, nere ustez, ejenplo bat bezela, erakuspide on bat: alkarri barkatzen ikasi bear degula rnundu ontan; ez sentitu ta gorrotatzen.

Ni orain aren ondorengoakin artueman gozotan nabil oso. Edozein gauzetan laguntzeko prest dauzkat noiznai, beartu ezkeru. Ori da gauzik ederrena neretzat, eta orixe deseo diotet beste guziaz ere.

Nik uskeri arengatik gaizki artu baino, etzan orain olako gozotasunik aren familiarekin eta gure artean izango. Eta au da nere iritzi pittña: barkatzeak geroko argitasuna dakarrela, ta lasaitasuna; eta gorrotatzeak, berriz, geroko illuntasuna edo kezka. Nik ala derizkiot beintzat.

Neri Jainkoak laguntza asko egin dit, edo-ta lortu ditut nik Ama Birjiñaren bitartez eta beste santu askoren bitartez, nere ustez beintzat. Eskatutako gauzik geienak lortu ditudala esango nuke.

Nik lortu ditudan gauzik bearrezkoenak, auetxek dirala esango nuke, beste askoren artean: sinismenean

sendo iraun nere bizitza guztian, geroago ta sendoago; maitasuna etxean eta kanpoan danakin; erakuspide onak eman danai; artu-emanetan zuzen jokatu, geroko kezkek izan ez dezadan.

Zartzarora iritxi ta osasunez ere oraindik bastante ondo arkitzen naiz: ibilbide ona daukat, bista ona, entzun ere oso ondo egiten det; eta laguntzaren paltik ez daukat, ez etxean ta ez kanpoan. Itz batean esateko, ezeren paltik ez daukatela esango nuke, Jainkoari eskerrak.

Ni pakezale izan naiz beti, len eta otain. Egunero errezatzen det, baiña ezin degu lortu ain bearrezko degun pake-giro ori, ez euskal errietan eta ez mundu zabalean ere, tamalez.

Len ere idatzi det eta ez naiz aspertzen: gure sinismena oztu zaigun aldi ontan, pake-bideetan ere narrastu egin ote geran esango nuke nik, eta maitasuna ere urritu, nere iritzi apalean.

Naikoa izango det ontatik eta beste lerro batzuk idatziko ditut urrengo saioan.

NERE AOLKU EDO KONTSEJUAK

Liburu kaskar au artu eta irakurtzen dezuten danentzat, nik onoko iritzi batzuk jarriko ditut.

Gu, kristauok, bi zatitan jarriak gaude. Parte bat anima degu, ta bestea korputza

Korputz onek gauza asko eskatzen dizkigu: ondo jan eta edan, ondo jantzi ta kanpoak ikusi, etxebizitza dotorean bizi, kotxea lanera joateko ta etortzeko eta jai-egunetan norabait joateko, ta abar ta abar. Oiek danak eta beste gauza asko ta asko.

Gauza oiek danak oso ondo daude. Danak egiñez bizi dira gaur asko, edo geienak gure artean. Baiña bagera oraindik ortaraiño iritxi ez geranak ere, danak basarritarrak noski, edo geienak bai beintzat. Guretzabo ez dago bakaziorik, ezta ere paga extraordinariorik.

Baiña basarriari eusten dionak, izango du zerjan, nolako edo alako. Baiña kalean gosea sortuko dala denbora luzea baiño len, denbora izango da testigu. Ojala ez. Baiña gauzak ala dirudi.

Gure koRputz onek engañatzen gaitu geienak. Baiña korputz au danok usteltzekoa degula, danok dakigun gauza da. Gazterik, sasoiko edo zartuta, danok eriotzera goaz. Noiz ta nola ez dakigula, baiña danok aruntz joan bearra degu. Ainbeste maite degun korputz au, ildakoan ezer ez. Danok berdiñak.

Orain, denbora daukagun artean, pentsa dezagun ondo badegula beste zati bat ikusten ez dana, gure anima, ta bein ere ilko ez dana, betikoa.

Ikusten ez dana dalako, orrek ematen dizkigu lanak sinisten. Baiña sinistu dezagun. Bestela, gure lanak eta nekeak alperrik ditugu mundu ontan. Danik eta azkarrena ta aberatsena baldin bada ere, alper-alperrik egiten ari da munduko bizitza, sinisten ez badu.

Sinismenean sendo ez badago, kristau osoa ezin leikela izan neri praille batek esan zidan. Neri ere ala iruditzen zait: gauza ori ala dala.

Eta beste gauza bat: kristauok, sinismena degunok, bizitza zuzena eraman bear degula. Ez du balioko bide txarretik egiten dan dirutzak. Diru ura, guk uste ez degula, bide txarretik joango zaigu, ta geroko kezketan geldituko gera.

Jainkoak kontu zorrotza eskatuko digu, emendik goazenean. An ez digu balioko diruak eta inbusteriak, egintza onak baizik.

Eta gure anima salbatzeko, zer egiten degu? Egun guzian gogoratu ere ez askotan. Korputzari bai; egunean iru edo lau aldiz, jaten da edaten ematen diogu. Ala eskatzen digulako, eman egin bear. Ortarako egiten ditugu lanak eta nekeak: korputza sostentzeko.

Gure korputz onen bidez eta egiten ditugun nekeekin, salbatu bear degu gure anima. Biak batean dabiltza il arteraiño.

Eta gure anima ori nola sostendu dezakegu? Bizitza zuzena egin badegu, ta egiten saiatzen bagera, oso errez, ta merke gaiñera: otoitz egiñaz konfiantza osoz, lagunduko digula gure eginkizun guztietan il arteraiño. Nik aitortzen det neri lagundu didala nere bizitza guztian.

Nik ez nuan orain aiña otoitz egiten lenago. Ori aitortzen det, egia esateko. Orain, egunean ordu erdi bat gutxienez, edo berrogei minutu askotan, oera joan aurretik. Errosarioa errezatu ta liburutik otoitz-klase asko egiten ditut. Egunari zer dagokion edo bizi-bideak nola erakusten digun, tamaiña artan egiten det nik otoitz.

Urtearen buruan nobena asko egiten saiatzen naiz: gaixo arkitzen diranen alde, pekatariak goner titzeko ta gure Euskalerra au edo gure Euskadi au paketu dedin. Batez ere, ilketa oiek bukatu ditezen, inondik al balitz, lenbailen. Ta abar ta abar.

Len esan dedana esango det edo jarriko det berriz ere: len ez nuan egiten oinbeste otoitz. Baina orain egunero gutxi edo geiago, otoitzean ikasi ezkeroztik.

Baita ziur nago beti lagundu didatela neri Ama Birjinak edo santuak, bitarteko egiten Jainkoarekin. Arek dana dezake eta eskatu dezaiozun uste orrekin danok, ta ez zaigu damutuko iñortxori ere. Ala bedi.

Neri, emaztea il ondoren sortu zitaidan gerora ta otoitz geiago egiteko zaletasuna, orain dala sei urte ta geiago, eta ala segitzen det.

Denbora ere badaukat, lan gutxi egiten det ia zartu naizelako; eta zenbat eta otoitz geiago egin, orduan da geiago egiteko zaletasuna sortzen zait. Eta ola segitu nai nuke, gauza naizen bitartean, aurrera ere.

Nik emen jarri ditudan aolku edo kontseju oiek guziak, nik egiten ditudanak, egitea, ez da aiiin erreza izango, liburu au irakurtzen duten danentzat. Eta ezta egin bearrik ere gure anima salbatzeko.

Baiña gure bizitzako eginkizunak zuzen eraman ditzagun. Eta egunero otoitz egiteko oitura artzen badegu, gero ta geiago egiteko zaletaeuna sortuko zaigu danori, neri bezelaxe. Orixe da nere naia edo uste ona, eta orixe opa dizutet nik danori.

Eta au ere jarri bear det, otoitz-kontuan ari naizen ezkeru: bakarka baiño, indar geiago duala otoitzak lagunakin eginda. Zenbat eta jende geiagoren artean eginda, orduan ta indar geiago duala gure otoitzak.

Orra or meza santua, otoitzik ederrena. Aixa asko uzten degu gaurko egunetan. Otoitz ederra benetan meza santua, arretaz entzuten badegu beintzat.

Onoko gauza au eutzun nion nik, orain dala urte asko, sermoilari bati: Jesukristoren odol-tanto bat naikoa dala mundua salbatzeko. Eta Jesusen odol guzia eskeintzen zaigula meza santuan, apaiz jaunen bitartez aldarean, joaten geran guzientzat berdin, debozioz entzuten badegu beintzat.

Ni jaiero joaten naiz eguraldi onean. Eguraldi txarra badago, ez naiz joaten, birajetxoia egiten baitzait.

Ia ordu bete bear det joan da etorri egiten. Baiña al dan guzian joaten naiz. Bestela, telebistan entzuten det; ta, nik uste dedanez, igualtsu balioko du, guk daukagun edadean, arretaz entzuten bada.

Ni mezetara joateko pozak egoten naiz. Iruditzen zait lan eder bat egiten detala eta indarberrituta etortzen naiz, eta aste guzirako. Nik aste guzian egiten ditudan lanak baiño geiago balio duala iruditzen zait. Buelta ori egiten ez naiz batere nekatzen. Esaerak dion bezela, “gustoko bidean edo tokian aldaparik ez”, ta ori gertatzen zait neri ere seguru.

Gure sinismenaren oiñarria dala derizkiot, nere iritzi apalean, meza santua komunioarekin. Komulgatuta oraindik osoago, Jesusen korputzarekin bat eginda gelditzen geralako. Kristau batek egin lezaken gauzik ederrena, jaiegun edo igandez.

Jaiean nolabait joan bear badute, berriz, or daude larunbat-illunabarrean ere mezak aukeran, nai dutenentzat.

Gure Jainkoak zazpi egunetik bat jarri zigun: igandea. Zertarako jarri ote zigun? Deskantsatzeko ta dibertitzeko.

Bai; oriek bidezko ditu kristauak mundu ontan. Baina, nere uste apalean, geixeago egin bear genduke, gure anima salbatzekotan, zazpi egunetatik batean.

Orixe eskatzen zaigu, gure munduko bizitzan, danori, kristau geran guztiori: egunero zertxobait otoitz egin, da jaiean, al bada, meza santua entzun, edo bestela larunbatean igandeko partez, edo beste jai-bezperan jaieko partez.

Ortarako nik uste det denbora artu bear gendukela, sano gauden guztiok; eta gauza on bat egingo gendukela guztiok nere iritzi apalean iruditzen zait, ori egingo bagendu.

Ni ezin naiz aspertu nere iritzi edo kontsejuak ematen, edo-ta idazten, liburu kaskar au osatzeko. Baiña beste zerbait oraindik ere jarri nai nuke.

Gogoratzen zaizkit gauza asko, eta onoko au orain dala urte bete edo geiago da noski gertatu zala; baiña askotan gogoratzen naiz.

Aspaldian ezagutzen nuan gizon batekin topo egin nuan. Basarritarra bera ere, ni baiño gaztexeagoa baiña, lau edo bost urtez inguru.

Inguruan bizituak gaztetan, baiña oso aparte bizi gera orain, ta kalte aundirik ere ez. Eta esan nion:

- Ni gutxitan joaten tiauk Donosti'ra, ta zaila izango diagu alkar ikusten berriz. Ta berriz ez badegu alkar ikusten emen, Josepetako zelaiean ikusiko diagu alkar.

Oso zakar jarri zitzaidan gizona:

- Esperantza orrekin al ago oraindik ere? Ez ago alperrik pentsatzen! Olako gauzak gu engañatzeko esaten zizkigutek. Guk emen bukatuko diagu. Geroko zer baiten esperantzan baldin baago, engañatua ago ederki. Kontu orrekin lanik egin gabe jaten ditek makiña batek gure kontura. Or ez zegok besterik ezer ere.

Beste kontu asko ere esan zidan eta oso gaizki partitu giñan. Ez nuan uste gizon ura alakoa zanik eta pena eman zidan gogotik, aren kontuak entzunda. Ura beie kasketan gelditu zan, ta nik ere nerearekin. Mudatu dedilla opa diot biotzez.

Gizarajo bat besterik ez da olako gizona, nere ustetan. Geiagori ere entzun dizkatet olamoduko kontuak, ta pena izugarria ematen didate neri biotz barrenean.

* * *

Berriz ere lengo bidera noa. Gure religioak len ere etsai asko izan ditu mundu-aldi guzian. Au da: gure

Elizak, relijioak edo fedeak, danak bat egiten dute. Orain ere otzaldi au da emen sortu dana bolara ontan, eta lanak emango ditu, tamalez. Baiña etorriko da onen buelta ere denborarekin. Zenbat eta lenago, obe, etorriko balitz lengo bide zarretara. Nik ala desio nuke beintzat.

Neri gizon jator batek esan zidan, orain dala bi urte edo geiago izango dira:

Emen sinismena galdu egin da, ta gauz askotan ajolakabetu egin gera. Geroko bildurrik gabe jarri gera.

Gauza askotan nik uste det arrazoi zuala. Il zan gizon ura ta betiko atsedena izan dezala.

* * *

Nik jarriko det beste gauz bat: nere iritzi apalean, mundua mundu dan arte, ez da federik eta Elizarik galduko.

Jaungoikoa baida munduaren oiñarri, ta jabe ta dana dezakena, ta gu ezer ez beraren laguntzik gabe. Nola dituan bereak zeruak eta lurak eta lurrean gabiltzanak eta emengo gauza guztiak, Berak nai duan bezela manejatua dezazke Jainkoak.

Guk zer degu emen arrotzeko: dirua? Sasoia? Buruz abilla? Iztun egokia? Estudiatua? Asko ikasiak?

Asko dira olakoak mundu zabalean. Aiek ere badituzte beren egin bearrak. Geienak zer edo zer, edo danak noski. Badago munduan orlako pranko gaurko egunetan. Oiek Jainkoak emandako birtuteak dituztela gogoratutzen ote dira? Asko bai, nere ustez.

Gizon on asko dago gure artean, eta izan ditezela aurrera ere gerora ta geiago. Bestela, galdua izango ote dan gure gaztedia, ni bildur naiz gogotik.

Nik pentsatzen dedana au da: sinismenik ez dan tokian ez dala bear dan bezelako errespatorik eta maitasunik edo eramanpenik; eta oiek bearrezkoak ditugula kristauok munduko bizitzan. Fedea edo kristautasuna galduko balitz, animalien antzeko jarriko ginake. Baiña ori ez da bein ere iritxiko. Mundua lenago bukatuko da.

Kristauak gera kristau izateko, eta animaliak animalia izateko. Orrek orrela segituko du beti. Animaliak kristauen bizitzan laguntzeko jarriak dira Jainkoak.

* * *

Orain beste gauza bat gogoratu zait nere buruan, eta emen jartzera noa, egia izango dan ustetan, nere iritzi apalean.

Naiz-ta edozein lan bezela, eskolan ere, nik pentsatzen det, kristautasuna, beste gauza askoren artean, ez duala lagunik txarrena izango gazteak, naiz-ta edozein karrera edo estudioan, aurrera ateratzeko.

Gaurko egun auetan bertan egin zaigu Kardenal jaun agurgarri Sukia, Zaldibi'ko seme azkarra. Amasei senideen artean irugarrena omen da. Arek izango zuan kristautasun sendoa, ainbeste estudiantzeko. Baita aren gurasoak ere, kristautasuna zutelako edo Jainko-laguntza, ainbesteko familia azitzeko ta edukatzeko.

Bada beste pamili bat gure jaioterrian, Gaintza'n, amabostekoa, ta uste det oraindik gurasoak bizi dirala. Nik ondo ezagutzen ditut guraso aiek, eta badakit sinismen sendokoak izan dirana beti.

Nik uste det gauza oriek ez dirala iristen, fede sendoa ez bada; eta pazientzi ikaragarriak pasa bearko dira, aiek danak aurrera ateratzeko. Guraso oien merituak, eta beste askorenak, ez dira nolanaikoak izan, euskal errietan azi ta edukatu diranak.

Pamili ederrik ikusten zan gure basarrietan, batez ere gure txiki-denboran. Ni ezin naiz aspertu orlako gauzak idazten, eta orain beste bat jartzera noa.

Gizonaren edo emakumeen bizitza luza erazten ari dirala. Gaur egun, giza-emakume gordin asko arkituko dituzu Euskalerrian ere, eta onoko kaso au jarriko det. Aurtengo Aguztuan nik irakurri det, Arantzazu'ko kalendarioko oja batean, Txomin Garmendia'ren bertso-kurpilletik artua-edo. Idatzi duana, jakingarria ez-ezik, arrigarria ere bada.

Zizurkil'ko Zaldu basarrian jaiotako amairu senidek, gaur osatzen dituzte milla urte, 1983'ko Maiatzaren 6'an. Senideetan zarrenak larogei ta zortzi urte ditu, eta gazteenak irurogei ta bost. Olako artaldea munduratzea gauz bat, azitzea bestea, ta bizitzea bestea.

Nik ez dakit aien berri. Baiña pentsatzen det nerekiko, an izango zala sinismena eta Jainko-laguntza.

Garai aietan ez zan, bada, gaur aiña jaten-klase izango. Baiña azi zituzten sano asko. Guraso aien merituak ez ziren nolanaikoak izango garai aietarako, beste askoren moduan.

Pamili aietan ez zan izango maldizio ta itz itsusi oietako askorik, otoitza baizik. Ni ortan nago beintzat.

* * *

Orain beste gauz bat jarriko det, gizon jator batek esan zidana, orain dala illabete inguru.

Bere familiarekin zan. Iru aur zituzten berekin. Laugarrena, ia azi samarra ta lagunakin ateratzen asia. Beste irurak, beren gurasoakin.

Asi gera esaten relijioko kontuak:

- Sinismena asko galdu zaigu bolara ontan.

Eta onela mintzatu zan gure gizon jator ori:

- Bai, gizona. Gurasoak ez daukagula betarik, presaka bizi gerala-ta, eskoletan ere ez diote ezer erakusten, ez dotriñik, ez relijioko gauzik; eta orra gure relijioa baztertu ia oso. Ni jaiero edo geienean joaten naiz mezetara. Batzutan larunbatean ere bai, jaiean norabait joan bear badegu.

Baiña ala zion gizon orrek: guraso asko dagoala mezetara joaten ez dana, tamalez.

Eta oso kezkatu zegoan gure gizon ori, naiz-ta gizon jatorra izan. Ala esan zidan, beste gauza askoren artean:

- Gu, gaurko gurasoak, familia azitzen ari geranak, erresponsabilidade ikaragarria daukagu. Gaurko munduko gaztedia ikusita, nik asko supritzen det, eta supritu bearko degu aurrera ere, oraingo itxuraz.

Gizon ori Ernani'n bizi da aspaldian, eta ondo ezagutzen du Don Jose Maria gotzai jauna ere. Buru azkarra ta listoa zala esan zidan, eta bere gurasoak ere oso elizkoiak zirala.

Olakoetatik ateratzen nunbait azkarrak eta gizon jatorrak, ori atera dan bezela. Eta atera ditezela berriz ere, premia izango da-ta, oraingo martxan bagoaz.

Bukatu egin bearko det. Bestela esango didale beti gauz bat jartzen ari naizela. Baiña ez dira gezurrak, jakingarriak baizik, eta lagun urkoari on egingo dioten ustearekin.

Ala gertatu dedilla, eta agur bero bat aitonak, larogeigarren urtean.

PENTSATU BEARREZKOAK

Orain idaztera noan au, liburuska onen azken atala izango da noski, eta onoko eskari auek egingo dizkat gure Jainkoari: liburuska au ondo ikusia izan dedilla, eta lagun urkoari on egingo diona. Orixe da nere naia. Ala gerta dedilla.

Liburu au irakurri ezkeru, ulertu liteke gutxi gorabera nere ta gure familia oso beartsu bizituak izan gerala, ta orain ere lengo modutsuan, baiña len baiño obetoxeago beintzat, naiz-ta besteren etxean bizitu.

Ni nere bizi guztian bizimodu nekosoia egiña izan arren, orain danak gozo biurtu zaizkit. Danak atsegin dira orain neretzat, eta esaten diotet neri illea artu naiean asten diranai:

- Neri iruditzen zait aberastua nagoala, ez diruz ta ez ondasunez, nere espirituz baizik. Itxaropen orrekin bizi naiz orain. Ez deidala utsegin itxaropen onek.

Eta orain onoko gauz au gogoratu zait: orain dala iru urte, edo lau ia, ebakuntza egin aurreko arratsaldean, Poliklinikan, onoko lerrook idatzita utzi nituan karteran sartuta, bada ez bazan ere, iñori ezer esari gabe; eta onela daude idatziak:

«Alkar maitatuaz lagundu alkarri, eta izan pakezaleak etxean eta kanpoan ta nunai. Egin otoitz al dan maizena, gutxienez goizean eta arratsean, eta ez zaizute damutuko, bizipoza sortuko baizik. Ni iltzen banaiz, ez ibilli loreak erosten kanposantura eramateko. Ori alperrikako diru-botatzea nola dan, nik ez nuke naiko ortan dirurik tiratzerik alperrik. Nik naiago det, kanposanturako loreak erosten bost duro gastatu baiño, elizan ogei duro botatzea».

Ori da, gutxi gora-bera, idatzita utzi nuan papera, iñori ezei esan gabe.

Paper ori daukat oraindik jasota. Baiña apenas iñork ikusiko zuan oraindik gure etxean.

Nik lengo iritzi berdiñak dauzkat orain ere. Irakurriko dituzte gero, nere ustez, eta gogoan izan ditzatela ta bete aolku oiek. Ori da nik nai nukena. Ala bedi.

* * *

Orain, loreak aitatu ditudan ezkeron, onoko iritzi auek jarriko ditut, barrenean ezin eduki ditut-eta.

Ni urtean bein joaten naiz kanposantura, edo eraman egiten naute, obeto esateko; eta, etxeko baratzen lorerik badago, aiek eramaten ez diotet galeraziko. Baina loreak erosten ez ditezela aritu esango nioteke. Alperrik dirua botatzea dala derizkiot nik.

Ni kanposantura joatean, txundituta gelditzen naiz, ango loretza ikaragarriak ikusita. Milloiak eta milloiak alperrik boteak, eta mundu zabalean milloika jendea goseak iltzen dirala, esaten dutenez. Eta ez aberatsak bakarrik. Beartsuak okerrenak, nere ustez. Besteak baiño eskasago ez egitearren, dirua alperrik botatzen dute, kanposantura eramateko.

An usteltzen ari dan edo usteldua dagoan korputzari loreak jartzeak, ez du ezer serbitzen. Alperrik dirua botatzea dala, danok dakigun gauza da ori. Bestela ere badago nun dirua botea, gaurko egunean batez ere.

Orra. Or elizan bertan eskatzen dute gauza askotarako: lan gabetuentzat, *Caritas*'entzat, goseak daudenentzat edo beartsuentzat, misiolariantzat, drogadituai laguntzeko, parroko gastuak ordaintzeko eta abar eta abar.

Oiek dira nere iritzi pitiñak. Aberatsak, danetarako iristen danak, eraman dezazke loreak kanposantura, loreakin bizi dan jende asko dago mundu zabalean eta aieri bizibidea ematen diotelako. Baiña beartsu geranok, badaukagu nun bota dirua, kanposanturako loreak erosten botea edo gastatu gabe alperrik.

Bein kanposantura eraman ezkeru, gure korputz au usteltzen joango da, ta ez dago arentzat erremediorik, loreak eraman edo urreaz tapatu sepultura dana, korputz danak usteltzekoak gera-ta. Ortan ez dago dudarik. Danok berdiñak geldituko gera il ezkeru. Emen ezberdiñak bagera ere, ara eraman ezkeru danok berdin.

* * *

Orain idatzi dezadan beste zerbait gure animaz. Guk, sinismena degunok, pentsa dezagun badegula beste zatitxo bat bein ere ustelduko ez zaiguna ta gure korputz ontan dabilkiguna gurekin batean il arteraiño.

Ez degu ikusten. Baiña sinistu egin bear deguna da ori. Gure sinisinenak eskatzen diguna. Gauza serioa eta asko kostatzen zaiguna, baiña bete bearrekoa, sinismenean irautezkeru.

Konparazio baterako, aizea ez da ikusten, baiña aizearekin bizi gera danok; eta gure anima, espirituzkoa nola dan, ezin dezakegu ikusi beste mundura joan artean; il artean alegia. Beste munduan ikusiko degula, bizi gaitezen itxaropen orrekin. Ala bedi.

* * *

Orain idatzi dezadan, saio au bukatzeko, nere bizitzaz zertxobait: ni ta gure pamilian beartsu bizitu arren, neri ez didatela bein ere itz batean ere kontrako arrazoirik eman edo bueltatu. Gauz guztietan obeditu didatela bizitzako gorabera danetan, orain arte beintzat. Ea emendik aurrera ere segitzen degun bide ortatik.

Nik, nere iritzi apalean, nere bizitza penoso ta bastante luzea izan dala derizkiot. Baiña askotan pentsatzen egoten naiz nereko: oso pitiña, uskeri bat bezela jotzen det mundu ontan igarotakoa, betikotasunarekin konparatuta.

Betiko atsedena lortzen badet, eta itxaropen orrek ez deidala utsegin, emengo gure bizitza oso laburra edo oso motxa dala nik pentsatzen det. Baiña bizitza ori nola igaro bear degun, ori ondo pentsatu bearrezko gauza degula; mundu ontako denbora labur au nola eramaten degun. Or dago betikotasunaren sustraia edo muiña.

Esaera dan bezela, «nolako bizitza, alako eriotza». Bizitza ona eraman duana, ondo ilko da. Bizitza gaizki eraman duana, gaizki ilko da.

Kontu auek gauza serioak dira danontzat. Baiña ortik pasa bearra daukagu guztiok, ordua datorkigunean. Eta auxe opa diotet nik guztiori biotzez: ordu on bat izan dezagula guztiok azken ordu ori. Ala gerta dedilla.

Liburuska au bertsoz asita
bertsoz nai nuke bukatu,
ta nola nuan gustoko lana
ez naiz batere nekatu.
Jainko-laguntza eskatu nuan
eta arek nola ukatu?
Ondo egin badet ondo artu ta
gaizki egin badet barkatu.

BUKAERA

Nere gorputza zartuta dago,
ez dago esan bearrikan,
baiña anima ta sinismena
ez dira zartu oraindikan.
Ni gauz oriekin seguru nago
ikusi ezagatikan,
sinismen berak ala agintzen dit
eta jartzen naiz pozikan,
bizipoz oiek etortzen dira
dudik gabe zerutikan.

Larogei urte eta
beste baten eske,
ontara irixtiak
badu naiko neke.
Bertso batzuk jartzia
urte oien truke,
Jaungoikoa eskertzen
saiatu naiteke,
izandu detalako
osasan da pake.

Orrenbeste urtetan
mundu ontan bizi,
Jaunari serbituaz
ondo lendabizi,
bai Berak eman ere
makina bat grazi.
Betikotasunera
nai bada iritxi,
bide ortatik segi,
ez dezagun etsi.

Eraman nai badegu
bizitza zuzena,
sinismenari eutsi,
ortxe dago dena.
Eta otoitza egin
al degun maizena,
ori da gure Jaunak
agintzen duena,
gero izan nai bada
betiko atsedena.

Lurreko argia itzali,
betikoa piztu,
beste irtenbiderik
mundu onek eztu.
Ori gogoan izan,
ezin degu aztu,
baiña nere iritziz
ezin gera nastu,
anima salbatu baiño
naio aberastu.

Iñoiz itzaltzen ez dan
argiaren billa
dijoana, uraxe
da naiko abilla.
Mundu ontan zergatik
ainbat iskanbilla?
Gizonak izan bear du
apal da umilla,
irabazi nai badu
betirako silla

AURKIBIDEA

Itzaurrea	7
Eskeintza	13
Nere aurtzaroa	15
Karobia	27
Orduko lan zakar aiek	30
Artzai-mutil	41
Etxe berria	47
Lanerako deia	51
Bi eriotz	57
Ezkontza	63
Gerra	67
Gerra ondoren	71
Semea-alabak	75
Alargun	85
Gure gurasoai	93
Lepotik estutu arren, ez itotzen	97
Nere parrandatxoak	103
Uba'ko Ama Birjiña	111
Gure aurrekoai entzunak	117
Lengo ta oraingo bizimodua	151
Gauz jakingarri batzuk	157
Nere aolku edo kontsejuak	167
Pentsatu bearrezkoak	181
Bukaera	187